



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko maiatzaren 25ean

36 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (2. or.).
- Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoko emendakinak (71. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Foru Lege proiektua

AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu da. Proiektu hori 1998ko urtarrilaren 23ko 9 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

OSOKO EMENDAKINAK

1. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Foru Lege proiektu osoari aurkezturiko emendakina, proiektua Gobernuari itzultzea eskatuz.

Zioak: Proiektuaren abagunea eta izpiritua egokitzat jotzen ditugun arren, ez dira egokitzat jotzen, hein batean behintzat, legeak dakartzan hurrenkera- eta sistematika-printzipio edo irizpideak. Hain zuzen ere, kontratazio-prozedura orokorrari jarraitzen zaio hurrenkera, kontratua edozein dela ere, legea aurrera doa kontratuen faseak aitzina doazen neurrian.

Estatuko 1995eko legeak, ordea, bestelako sistematika du: kontratazioari eta prozedurari buruzko teoria orokorra jarri baitu hasieran eta kontratu bakoitzaren tratamendu berezia, ondoren.

Hurrenkera ezberdin horrek halako zailtasun bat sortzen dio legeak xede duen herritarrari, oro-

bat aztertu, ezagutu eta aplikatzerakoan, alde tekniko politikoari gailentzen zaion gaia denez gero.

Era berean, bi legeek badute zerikusirik elkarrekin, estatukoak foru legean izango duen eragina kontuan hartzen badugu, bakoitzari dagozkion eskumenak aplikatzerakoan.

Hori guztia horrela, ziurtasun juridiko eta pertsonendako zerbitzu handiagoa lortuko bada, ezinbestekotzat jotzen dugu foru legearen garapenak estatuko legearen sistema bera edo antzekoa izatea.

Edonola ere, emendakina aurkeztu duen taldearen irizpidea da onesteari ala ez onesteari buruzko eztabaida azkarren hastea ahalbidetuko duena onartzea.

2. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Erabaki-proposamena: Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzea.

Zioak: Gobernuak aurkeztu duen lege proiektuak ez ditu biltzen ez jasotzen arlo honetako foru legedia egokitzeko sortu diren lan taldeek eta batzordeek eman dituzten oinarritzko irizpideak.

Nafarroako Foru Administrazioarekin zerikusia duen hainbat ariketa eta jarduketaren inguruan sortu den ustelkeriak egonezin eta kezka handia sortu du gure gizartean, eta horretaz gain, kontratazio publikoei buruzko arauak legezko erreferentzia argia eta arau-printzipio ezin eztabaidatuzkoak behar izatea, bai horien formulazioari buruzkoan, baita interpretazioan ere. Gobernuak bidali duen lege proiektuak, ordea, kontratazio-faseetan oinarritzen den garapena burutu nahi

duenez, gehiegizko nahastea ekarri du, legearen disfuncionalitateraino ere hel daitekeena.

Beste edozein sistematika hartu eta kontratazioaren printzipio orokorretan eta kontratu-mota guztien sistematikan oinarrituz gero, arau eragin-korragea lortuko litzateke. Arau honek, bestalde, hainbat betebeharrak eskatzea oinarritzat hartzen duenez, hala nola 8, 10, 11... artikuluetan biltzen direnak, hurrengo kontua atera dezakegu: Kontratu-erburuzko legea arau orokortzat aplikatzeko salbuespenak gehiago izango direla legearen aplikazioa bera baino.

Hain zuzen ere, Nafarroako 13/86 Foru Legearen ondorengo kontratazio sistema guzti hark eragin baldin bazituen guztiok ezagutzen ditugun ondorio tamalgarriak, arauari berari ezarri zitzaizkion salbuespenengatik izan zen, arauak berez izan zitzakeen akatsengatik baino.

Lege proiektu honetan, beraz, bestelako arauetan dagoeneko ezarrita dauden hainbat gauza errepikatu egiten dira, hala kontratu-erburuzkoak, nola bateraezintasunen arlokoak, eta abar; baina ez zaio heltzen gai nagusiari, hots, salbuespenik gabeko, eta beraz, diskrezionalitate-rik gabeko legezko oinarria sortzeari.

Funtsean, emendakina jarri diogun proiektuak garatzen dituen gai gehienak legea garatuko lukeen erregelamenduari dagozkio, eta nahastea sortzen dute sistematikaren aldetik oker dagoen testuan. Proiektuak, gainera, lege batek izan dezakeen akatsik handiena du, alegia, salbuespenak gehiago izatea legearen beraren aplikazioa baino.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

1. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 1. puntua kentzeko emendakina.

“...beti ere” eta “...errespetatuz”en arteko testua kentzea proposatzen da.

Zioak: Printzipioak betetzea foru legegileari dagokio. Garapena marko horretan egingo da.

2. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

1. artikuluko 1. puntua aldatzeko emendakina.

“...beti ere”tik bukaeraraino doana honako testu honekin ordeztzea proposatzen da:

“...beti ere, iragarpen-, lehia-, objektibotasun- eta berdintasun-printzipioak nahiz zuzendu, ikuskatu, interpretatu, jakinarazi eta kontrolatzeko administrazio-ahalmenak errespetatuz”.

Zioak: Proiektuko testuak bere artikuluetan zehaztu gabe uzten ditu administrazio kontratazioa gidatu behar duten funtsezko printzipioak.

3. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1.2. artikuluko b) eta c) puntuak aldatzeko emendakina.

Hurrenkera aldatzea proposatzen da. b)k c) behar du izan, c)k b) izan behar duelako.

Zioak: Erakunde-Administrazioa baino lehenago Lurralde Administrazioa antolatzea beharrezkoa dela dirudi.

4. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. idazatik c) letra aldatzeko emendakina.

Proiektuko 1. artikuluko 2. idazatik c) letra honako aukerako testuarekin ordeztzea proposatzen da:

“c) Nafarroako toki-entitateei eta haien erakunde autonomoei, Toki Administrazioari buruzko Foru Legean aurreikusitakoari jarraituz, bertan aipatzen diren berezitasunei aurka egiten ez dien guztian.”

Zioak: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposaturiko idazmodu horri buruzko eztabaidak interesgarria dirudi. Proposamen horrek gehiago zehazten ditu Nafarroaren toki-berezitasunak.

5. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. idazatiko d) letra aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordez:

“a) letran aipatzen diren Administrazio Publiko-
etako edozeini”

Honako hau esan behar du:

“artikulu honetan aipatzen diren Administrazio
Publikoetako edozeini”.

Zioak: a) letran Administrazio bat bakarrik
aipatzen da.

6. EMENDAKINA**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1.2. d) artikuluko lehen lerroaldea aldatzeko emendakina.

“...d) Erantzukizun juridiko propioa duten zuzenbide publikoko gainerako entitateei, aurreko letretan aipatzen diren Administrazioetako edozeini loturik edo horren menpe badaude. Ondorio horietarako, betebeharrak hauek batera agertzen direnean ulertuko da lotura edo menpekotasun hori dagoela.”

Zioak: a), b) eta c) letretan aipaturiko edozein Administrazioetako zuzenbide publikoko entitateei aplikatu behar zaie Legea.

7. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1.2. c) artikuluari gehiketa egiteko emendakina:

“berezitasunei” eta “aurka”ren artean honakoa jarri: “eta haiei zuzenduriko kontratazio-legediak xedatzen duenari”.

Zioak: Toki-kontratazioari buruz egitear dagoen arauari edukia ematea eta berezitasunak jasotzea.

8. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1.3. a) artikuluko 2. lerroaldea aldatzeko emendakina:

Honako hau esan ordez:

“haiei loturiko laguntza kontratuak”

Honako hau esan behar du:

“haiei loturiko aholkularitza- eta laguntza-kontratuak eta berriazko eta ez ohiko zerbitzu eta lan zehatzetarakoak”

(Halaber, emendakin hau onesten baldin bada, legearen testu osoan “laguntza-kontratuak” terminoa alda dadila eskatzen da, proposatzen den zentzu zabalean erabiltzen denean, ez hertsiki “laguntza-kontratu” gisa.)

Zioak: gure ustez 13/1995 Legea hain sakonki aldatzea ez dago justifikatuta.

9. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1.3. a) artikuluko 2. lerroaldeari aldaketa egiteko emendakina:

Honako hau esan ordez:

“aipatu den beste edozein kontraturen kasuan”

Honako hau esan behar du:

“laguntza-kontratuaren kasuan”

Zioak: Aurreko emendakin batean proposatu bezala, “laguntza-kontratu” kontzeptua aldatzen ez bada, lerroaldea hobeto idatzi beharko da, obra- edo laguntza-kontratuak soilik aipatzen direlako.

10. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1.3. b) artikulua aldatzeko emendakina:

Honako hau esan ordez:

“Haien xedea izatea ingeniariaritzaren zibileko obrak egitea”

Honako hau esan behar du:

“Haien xedea izatea Europako Komunitateeta-ko Jarduera Ekonomikoen Izendegi Orokorreko (EKJI) 502 taldeko 50 motako obrak egitea”

Zioak: 13/1995 Legearekin nahasmendurik ez sortzea.

11. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1.3. b) artikuluko lehen gidoiari gehiketa egiteko emendakina.

Hirugarren “;”ren ondoren honako testu hau gehitzea:

“; hirugarren adinekoen egoitzak eta antzekoak”...

Zioak: hori jartzeak beharrezkoa dirudi, hainbat kasu kanpoan gera ez dadin.

12. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1.4 artikulua honako testu honekin aldatzeko emendakina:

4. Iragarpen, konkurrentzia, gardentasun, objektibotasun, berdintasun eta ziurtasun juridikoren printzipioak Komunitateko eta toki-entitateetako sozietate eta fundazio publikoek izenpetzen dituzten kontratuei aplikatuko zaizkie, egin beharreko eragiketaren izaera aipaturiko printzipioekin bateraezina denean izan ezik; hala bada, bateraezintasuna espedientearen frogatu beharko da.

Zioak: Irizpide horiek sozietate eta fundazio publikoei aplikatzea.

13. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1.4. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

“izenpetzen dituzten kontratuei”ren ondoren, “eta zuzenbide pribatuko Foru Komunitateko ente publikoei” gehitu.

Zioak: ente horiek ez aipatzea ez da ulertzen.

14. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

Bukaeran, beste puntu bat:

“5. Herrilanen kontzesio-hartzaileei iragarpen-arauak aplikatu ahal izango zaizkie Foru Lege honetako 15. eta 66. artikuluek xedaturiko moduan”.

Zioak: Herrilanen kontzesio-hartzaileen aipamena zehaztea.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

15. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. puntua kentzeko emendakina

Zioak: Jadanik esana dago 1. artikuluan. Errepikapen bat da, interpretatzerakoan nahasmena eragin dezakeena.

16. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

2.1. artikulua aldatzeko emendakina.

“1. Obra publiko baten kontzesio-hartzailea Administrazio bat izanez gero,...”

Zioak: Proiektuko 8. xedapen gehigarrian definituriko Administrazio-kontzeptua erabiltzea, eta ez zehaztu gabeko kontzeptu bat, Administrazio Publikoarena, kasu.

17. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

2.2. artikuluko lehen lerroaldea aldatzeko emendakina.

“2. Kontzesio-hartzaile pribatuak izanez gero, hirugarren batekin izenpetzen dituzten obra-kontratuak 64.3 artikuluan ezarritako lizitazio-iragar-kiari buruzko iragarpen-arauen menpe jarri behar-

ko dituzte, salbu eta kontratuaren prezioa 5.000.000 ecu baino gutxiago bada, Balio Eran-tsiaren gaineko Zerga kendurik, edo esleitua izateko iragarpenik gabe negoziaturiko prozedura erabiltzen bada.

Zioak: zehatzago izatea.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

18. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

3.1.g. artikuluari aurkezturiko kentzeko emendakina.

“Halaber, ulertzen da kanpoan gelditzen direla...”tik lerroaldearen bukaeraraino doan testua kentzea.

Zioak: Testu hori sartzeari ez da beharrezkotzat jotzen.

19. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

3.h. artikuluan aldaketa egiteko emendakina.

Honako hau esan ordez:

“Administrazioaren eta zuzenbide pribatuko sozietateen arteko harremanak”

Honako hau esan behar du:

“Zuzenbide pribatuko sozietateekin zerbitzu publikoak kudeatzeko izenpeturiko kontratuak”.

Zioak: Ez da arrazoirik ikusten “harremanak” bezain kontzeptu zabal bat legetik kanpo uzteko.

20. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

3.1.i) artikulua gehitzeko emendakina.

“i). Europako Komunitatea Eratzeko Hitzarmenari jarraituz eginiko nazioarteko itunen ondoriozko kontratu eta hitzarmenak, elkarrekin obra bat burutzeko zein ustiatzeko diren hornidurei edo obrei buruzkoak, edo helburu gisa elkarrekin

proiektu bat burutzeko zein ustiatzeko diren laguntza-kontratuak buruzkoak.

Zioak: Nafarroako Foru Komunitateak Europako Batasuneko kide diren Estatuetak mugak eskualdeekin izenpeturiko akordioen ondorioz sinatzen diren kontratuak ere sartzeari.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

21. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 3. puntua kentzeko emendakina.

“bereziki”tik aurrera doana kentzea.

Zioak: Zehazteak nahasmena eragiten du, 2.b. idazatiak arauturiko kasuak gerta daitezkeelako: trukea eta abar.

22. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

4. artikuluko 2. puntuko a) letrari gehiketa egiteko emendakina.

Lerroaldearen bukaeran “eta zerbitzuetarakoak” gehitzea proposatzen da.

Azken lerroa horrela idatzia geratuko da:

“...hornidurak eskuratzea bada, laguntzakoak eta zerbitzuetarakoak”.

Zioak: Aurreko lege-proiektuak, Kontratazioa ikertzeko Batzorde Berezian aztertutakoak, egiten zuten aurreikuspena eta zeukan idazmodua osoa gotzat jotzea.

23. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

4. artikuluko 2. puntuko a) idazatiari gehiketa egiteko emendakina. Testu hau gehitzea proposatzen da:

“laguntzakoak, aholkularitza edo zerbitzuetarakoak eta salbuespen gisa pertsona fisikoekin ezohiko lan zehatz eta berariazkoak egiteko izenpetzen direnak.”

Zioak: kontratu administratiboaren definizioan lege administratiboek halakotzat jotzen dituztenak sartzea.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

24. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

5.1. artikulua aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordez:

“Kontratu administratibo”

Honako hau esan behar du:

“Kontratu administratibo tipiko”

Zioak: 4. artikuluko izena aplikatzea.

25. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

5.3. artikuluari gehiketa egiteko emendakina

Azken lerroaldea:

“Kalkuluar dagokionez, egin litezkeen luzapenak ez dira kontuan hartuko.”

Zioak: Legean erabiltzea beharrezkoa da.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

26. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari gehiketa egiteko emendakina. Honako edukia izango duen 7 bis artikulua gehitzea proposatzen da:

7 bis artikulua: Administrazioaren hitzarmenak.

1. Administrazioak izenpeturiko hitzarmenek, lege honetako 3. artikuluko 1. zenbakiko c) eta d) idazatietan aurreikusirikoek, honako hau zehaztu beharko dute:

a) Zer organo edo pertsonak izenpetu duten hitzarmena eta alderdi bakoitzak zer nolako gaitasun juridikorekin jardun duen.

b) Administrazio bakoitzak zer eskumen erabili duen.

c) Finantzaketa.

d) Hitzarmena betetzeko zer jarduketa burutzea erabaki den.

e) Kudeaketarako erakunde bat ezartzea beharrezkoa den ala ez.

f) Indarraldia. Horrek ez du luzapena eragotziko, hitzarmena izenpetu duten alderdiek hori erabaki baldin badute.

g) Aurreko idazatian aurreikusitakoaz bestelako kausa baten ondoriozko iraungipena eta abian dauden jarduketak nola bukatu iraungipena gertatzen bada.

h) Izenpetu beharreko hitzarmena interpreta-tzean eta betetzean sor litezkeen arazoak konpontzeko zaintza- eta kontrol-organo mistorik eratu den ala ez.

i) Hitzarturiko eskubide eta betebeharren egokitasuna ebaluatzen duen oroitidazkia, kontuan hartu diren erreferentziak adieraziko dituen.

j) Xedea kontratu bidez burutu ordez hitzarmen bidez burutzea onura publikorako garrantzitsua dela justifikatzea.

2. Hitzarmen bat izenpetu aurretik horri buruzko iragarkiak argitaratuko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Komunitate honetan hedapena daukaten bi egunkaritan, eta hamabost eguneko epea emango dute beren burua interesatuzt daukatenak agertu ahal izan daitezen. Epe hori igaro ondoren, hitzarmena berrestearen komenigarritasunari buruz egokitzen hartzen dena erabakiko da, eta horren berri emango zaie prozesuan agerraldia egin dutenei, hala izan bada.

3. Iragarkian, laburki, hitzarmenaren edukia iragarkian buruzko zehaztasunak konstaraziko dira.

4. Kontratuen eta Hitzarmenen Erregistro Publikoan gordeko dira hitzarmenak.

Zioak: hitzarmenaren edukia ezagutzeko beharra.

I. TITULUKO I. KAPITULUARI
AURKEZTURIKO EMENDAKINA

27. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

I. Tituluko I. Kapituluaren sistematika aldatzeko aurkezturiko emendakina.

Artikuluak honela ordenatzea proposatzen da:

1-2-3-7-4-5-6

Zioak: Sistematika honek egokiagoa dirudi.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA

28. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

9 bis artikulua berria gehitzeko emendakina.

Kontratuaren objektua.

Kontratu administratiboaren objektua zehaztu egin beharko da eta justifikatu egin beharko da, kontratazio-espeditentean, kasuan-kasuko zerbitzu publikoaren helburuak betetzeko beharrezkoa dela.

Zioak: kontratuaren funtsezko elementu bat definitu beharra.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK

29. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko emendakina.

“Nazioko monetan” bi espresioak “Ecu-tan edo Europako moneta-unitate bateratuan” espresioarekin ordeztzea proposatzen da.

“Atzerriko moneta” espresioa “Europakoa ez den beste moneta bat” espresioarekin ordeztzea.

Zioak: Beharrezkoa dirudi Lege osoan “Europako moneta-unitateak” espresioa aipatzea.

30. EMENDAKINA

**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

10. artikuluari beste idazati bat gehitzeko emendakina

“2. Administrazio klausula partikularren orrian kontratu horien prezioa zehazteko sistema ezarriko da, eta hauetako bat izango da: osotasunaren gaineko prezioa, edo obra- zein denbora-unitateen arabera, edo tarifan oinarrituriko lanbide-ordainsariek osaturikoa, edo horietako aukera batzuen konbinazioa.”

Zioak: argitasun handiagoa.

31. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua ondoen beste bat gehitzeko emendakina.

“11. Kontratuen objektua.

Kontratuen objektuak zehatza beharko du izan, eta, kontratazio-espeditentean, kasuan kasuko zerbitzu publikoaren helburuak bete ahal izateko beharrezkoa dela justifikatu beharko da.”

Zioak: Legeko beste puntu batean gauza bera aipatzen den arren, egokiago dirudi kontzeptua hementxe finkatzea.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK

32. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

11.1. artikulua aldatzeko emendakina.

1. idazatikoa testu osoa beste honekin ordeztzea proposatzen da:

“1. Kontseilariak dira Foru Komunitateko Administrazio-organoko kontratazio-organokoak, eta ahalmena daukate horren izenean eta hori ordezkatzu kontratuak izenpetzeko, nork bere eskumenen esparruan jarduten duenean.

2. Lehenengo idazatian xedaturikoa gora-behera, hornidura-kontratuetan, Ekonomi eta

Ogasun Kontseilariak zehaztu ahal izango du zer ondasun izango diren bere Departamentuak egini-ko erosketa zentralizatuaren xede; baita ere, ondasun zehatz batzuen erosketa nahitaezko uniformetasuneko deklaratu ahal izango du.

Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak erosketa zentralizatuaren xede deklaraturiko ondasunak kontratazeko organoa izendatuko du.

Kontseilariak izango dira nahitaezko uniformetasuneko deklaraturiko ondasunak kontratazeko organoak, hurrengo idaztietan xedaturikoaren kalterik gabe.

3. Zuzendari nagusiek, idazkari teknikoek eta erakunde autonomoetako berariazko araudiak izendatzen dituenek kontratazio-organo gisa jardun ahal izango dute kontratu txikietan, beti ere erosketa zentralizaturako hautatutako ondasunak horien xede ez direnean.

4.- Nafarroako Gobernuak, erregelamendu bidez ezarriko dituen baldintzetan, departamentuetan eta erakunde autonomoetan kontratazio batzordeak eratzea baimendu ahal izango du, eta kontratazio-organo gisa jardungo dute.

5. Kontseilarien kontratazio-ahalmenak eskuordetu edo banatu ahal izango zaizkie Zuzendari Nagusiei, Nafarroako Gobernuaren Foru Dekretu bidez.

Zioak: proiektuko testua ez da onartzen.

33. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

11.1. artikuluko b) letrako 2. eta 3. lerroaldeak aldatzeko emendakina.

“Lehendakaritza Departamentuan bilduko dira objektutzat informatikako eta informazioaren eta komunikazioen teknologiako ondasun eta zerbitzuak dituzten hornidura- eta laguntza-kontratuak. Era berean, Lehendakaritza Departamentuari dagokio segurtasun-elementu eta -zerbitzuen erosketa zentralizatua.”

Zioak: idazmodu zehatzagoa.

34. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.
11. artikuluko 1. zenbakiko b) letrako hirugarren lerroaldeari honakoa gehitzea proposatzen da:

Kontratazio-organo horrek uneoro Administrazioaren beraren giza-baliabideak erabiltzeari eman beharko dio lehentasuna, segurtasun-arloan inolako kanpo-kontrataziorik egin aurretik. Beti ere, Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak arlo honetan egin beharreko kontratazio guzti-guztien justifikazio-arrazoiak azaldu beharko dizkio Gobernu Kontseiluari.

Zioak: Egiten hasi diren zenbait obratarako segurtasun-zerbitzuen kontratazioa dela-eta Nafarroan izan diren gehiegikeriak ikusirik, beharrezko deritzogu kontrol eta jarraipen handiagoko neurriak hartzeari, Administrazio Publikoak arlo honetan burutzen diren kontratazioei buruzko ezagutza zehatzago eta zuzenagoa eduki dezan posible izan dadin.

35. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko 1. idaztiko d) letra aldatzeko emendakina. Honela geratuko da:

“Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez zehaztuko ditu berak edo administrazioko beste organo batzuek departamentuetan eta erakunde autonomoetan kontratazio batzordeak –kontratazio organo gisa jardungo dutenak– eratzeko baimena eman ahal izateko prozedura eta baldintzak.”

Zioak: Kontratazio-organo kideanitzen sorrera ez eragozte.

36. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

11.1.d) artikulua aldatzeko emendakina.

Nafarroako Gobernuak, erregelamendu bidez, kontratazio-batzordeak eratuko ditu departamentuetan eta erakunde autonomoetan, eta batzorde horiek kontratazio-organo gisa jardungo dute. Horien osaketa kontratazio-mahaiek duten berbera izango da.

Zioak: Egonkortasuna ematea eta beren kideak espezializatzea; gainera, erregelamendu bidez bi motako batzorde ezar daiteke, kide-kopuru handia nahiz txikia izan dezaketenak, haien jarduna arina izan dadin, behararen arabera.

37. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

11.1. artikuluko d) idazatia aldatzeko emendakina.

Lerroaldearen bukaeran honako hau gehitzea proposatzen da:

“Kideetako batek nahitaez funtzionario izan beharko du, lege edo erregelamendu bidez kontratazio-organoaren aholkularitza juridikoa eratzikia daukatenetakoa. Kideetako beste batek kontuhartzaile beharko du izan”.

Zioak: Kontratazio Batzordearen kideetako bat legelari eta beste bat kontuhartzailea izatea beharrezkoa izan dadila xedatzea.

38. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

11.2. artikulua aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordez: “100 milioi pezeta”

Honako hau esan behar du: “horren baliokidea ECUtan”.

(Emendakin hau onetsiko balitz, Legean pezetari buruz egiten diren aipamen guztiak aldatu beharko liriteke eta horien lekuan ECUari edo hori ordeztuko duen Europako moneta-unitateari buruzko aipamena jarri).

Orientabide gisa, honako artikulua hauek aipatzen ditugu: 12; 50; 51; 75; 77; 91; 95; 2. Xedapen Gehigarria; eta beste batzuk.

Zioak: Beste emendakin batzuekin koherentzia mantentzea; baita legearekin berarekin ere, 1. eta 2. artikuluetan ECUak aipatzen baititu.

39. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

Artikuluaren bukaeran beste puntu bat:

“4. Nafarroako Unibertsitate Publikoan kontratatze eskumena bere berariazko arauari jarraituz zehaztuko da”.

Zioak: 1.2.b) artikuluan eginiko NUPi buruzko aipamena garatzea.

13. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**40. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

13.b) artikulua aldatzeko emendakina.

...ingurugiroaren gaineko eraginaren zuzenketak, urbanizatzeko jarduketak...

Zioak: Obra-kontratuaren objektuarekin zerikusi handiagoa.

41. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua ondoen beste artikulua bat gehitzeko emendakina.

Testua: “Kontratu Txikiak”

“Kontratu txikitzat hartuko dira 5.000.000 peze-ta baino gehiagoko zenbatekoa ez daukatenak.”

Zioak: hori sartzea beharrezkotzat jotzen da.

14. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**42. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua izenburua aldatzeko emendakina.

“Obra publikoen kontzesiorako kontratuaren kontzeptua”.

Zioak: Gaizki izendatua.

43. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gaztelerazko bertsioko 14.1 artikulua aldatzeko emendakina

Honako hau esan ordez:

“Se considera concesión de obras públicas el contrato que...”

Honako hau esan behar du:

“Se considera contrato de concesión de obras públicas aquel en el que, teniendo...”

Zioak: idazkera hobetzea.

44. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Beste artikulua bat gehitzeko emendakina, 14aren ondoren, honako testu honekin:

“15. artikulua. Hirugarrenei lagatzea.

Obra publikoen kontzesiorako kontratuan Administrazioak kontzesio-hartzailea behartu ahal izango du kontratuaren portzentaia bat hirugarren bati lagatzera, obraren balio guztiaren 100eko 30ekoa, gutxienez, izango dena. Lizitatzailleek hori gehitu ahal izatea eta zenbatekoa kontratuan adierazi beharko dutela aurreikusi beharko da. Bestela, horiei gonbidapena egin ahalko diete beren eskaintzetan hirugarrenei lagatuko dieten gutxieneko portzentaia adieraz dezaten.”

Zioak: Hirugarrenei lagatzeari buruzko aipamen bat egitea.

**15. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****45. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

Beste puntu bat lehenaren ondoren, testu honekin:

“2. Zerbitzu publiko baten kontratazioa egin aurretik, horren oinarriko araubide juridikoa zehaztu beharko da; hain zuzen, administrazio-eskumenak esleitu, administratuen aldeko prestazioen norainokoa ezarri eta kasuan kasuko jardura Administrazioak berea balitz bezala hartzen duela espreski adieraziko duena.

3. Beti ere, Administrazioak gorde egingo ditu kasuan kasuko zerbitzuak behar bezala ematen direla ziurtatzeko beharrezkoak diren polizia-bote-reak.

4. Kontratuak argi adieraziko du kudeaketaren esparrua, hala ikuspuntu funtzionaltik nola lurraldearenetik ere.”

Zioak: zerbitzu publikoen kontratazioa gehiago zehaztea beharrezkoa dela dirudi.

46. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluari honela dioen 6. idazkia gehitzeko emendakina:

“Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratazio-espedita bat izapidatzen hasi aurretik, kontratua sinatuko duen administrazioak Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkulariaren txostena, zerbitzua kontratatzearen egokitasunari eta beharri buruzkoa, eskuratu beharko du.”

Zioak: Zerbitzu publikoen pribatizazio-prozesua razionalizatzea.

**16. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****47. EMENDAKINA****«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko emendakina.

“...hirurogeita hamabost urte...” esan ordez “...hogeita urte...” esan behar du.

Zioak: Zerbitzu publikoak kudeatzeko pribatizazioen iraupen-epea razionalizatzea.

48. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

Proiektuko 16. artikuluko testuaren ondoren honako hau gehitzea proposatzen da:

“...toki-araubideko legedian zerbitzu publikoak zeharka kudeatzeko ezarritako gehieneko epearen kalterik gabe”.

Zioak: Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 194. artikulua xedatzen du zeharkako kudeaketa, edozein eratan dela ere, ezin izango dela epe mugagabe baterako esleitu, eta hitzarmenaren epe-muga zerbitzuaren ezaugarrien arabera finkatu beharko dela; baita ere, epeak, luza-penak barne, guztira berrogeita hamabost urte baino gehiago ezin izango duela iraun.

Beraz, zerbitzu publikoak kudeatzeko toki-entitateek izenpetzen dituzten kontratuak gehieneko epe hori errespetatu beharko dute.

**17. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****49. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

2. puntuaren ondoren beste bat gehitzea proposatzen da, testu honekin:

“3. Aurreko idazatian adierazitakoa gora-behera, neurrira garaturiko ordenagailu-programak erostea zerbitzu-kontratutzat hartuko da”.

Zioak: ordenagailu-programen erosketari buruzko aipamena legearen zati honetan kokatzea.

50. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

17.3. artikulua aldatzeko emendakina.

“fabrikazioko hornidurei” esan ordez “fabrikazio-kontratuak” esan behar du.

Zioak: zorrotzagoa dirudi.

51. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

17. artikulua ondoren beste artikulua bat gehitzeko emendakina.

Testua: “Hornidura txikiak”

“Hornidura-kontratuak kontratu txikitat joko dira beren zenbatekoa 2.000.000 pezeta baino gehiagokoa ez baldin bada.”

Zioak: beharrezkoa da gehiketa hori egitea.

**II. TITULUKO I. KAPITULUKO 4. SEKZIO-
ARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****52. EMENDAKINA****FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

4. Sekzioaren izenburua ordeztzeko emendakina.

Aholkularitza-, laguntza- eta zerbitzu-kontratuak eta Administrazioetan ezohiko diren lan berrazko eta zehatzez.

Zioak: Parlamentari honen beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz.

53. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

4. Sekzioaren izenburuari gehiketa egiteko emendakina.

“eta zerbitzu-” gehitzea proposatzen da. Honek idatzita geratuko litzateke: “Laguntza- eta zerbitzu-kontratuak”.

Zioak: Kontratazioa Aztertze Batzorde Berean aztertutako lehengo lege-aurreproiektuaren aurreikuspena eta idazkera osoagoak direla uste dugu.

20. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

54. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

20.1.b. artikuluari aurkezturiko kentzeko emendakina.

Honakoa kentzea proposatzen da: "eta, orokorrean, Administrazioak kontratatzen dituen prestazioak".

Zioak: kontzeptu berri hori sartzea ez zaigu egokia iruditzen.

55. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

20. artikulua honako testu honekin ordeztzeko emendakina:

20. artikulua: Araubidea eta kontzeptuak.

1. Administrazioak izenpetzen dituen aholkularitza eta laguntzarako nahiz zerbitzuetarako kontratuak Foru Lege honek arautuko ditu.

2. Aholkularitza-eta laguntza-kontratuak honako xede hauek dituztenak dira:

a) Txostenak, azterketak, planak eta proiektu tekniko, antolamenduzko edo gizarteari buruzkoak aztertu eta egitea eta obra eta instalazioen burutze eta mantenimendua nahiz antolamendu-sistemen ezarpena zuzendu, ikuskatu eta kontrolatzea.

b) Administrazioarekin lankidetzan eta horren ikuskapenarekin honako prestazio hauek burutzea:

– Edozein lan tekniko egin ahal izateko datu-bilketa, ikerketak eta azterlanak egitea.

– Ondasun publikoak kudeatzeko eta izaera horretako zerbitzuak antolatzeko aholkularitza.

– Azterlanak egitea eta laguntza ematea proiektuak eta aurreproiektuak egiteko, horiek aldatzeko eta obra eta instalazioen burutze eta mantenimendua nahiz antolamendu-sistemen ezarpena zuzendu, ikuskatu eta kontrolatzeko.

– Aurrekoekin zerikusi zuzena zein zeharkakoa duen beste edozein zerbitzu, baldin eta

horrek ere izaera intelektualeko prestazioak nagusi baditu.

3. Zerbitzu-kontratuak dira xedea betetzeko honelako jarduerak beharrezko dituztenak:

a) Teknikoak, ekonomikoak, industriakoak, merkataritzakoak edo antzeko izaerako beste edozein, baldin eta aholkularitza- eta laguntza-kontratuetan edo Titulu honetako beste kapitulueta arauturikoetan sarturik ez badaude.

b) Administrazioaren funtzionamendurako osagarri direnak.

c) Ondasunak, ekipamenduak eta instalazioak mantendu, kontserbatu, garbitu eta konpontzekoak.

d) Administrazioarendako neurritara garaturiko ordenagailu-programak, hark askatasun osoz erabiltzekoak izango direnak.

4. Ezohiko lan berariazko eta zehatzak burutzeko kontratuak hauexek dira: aurreko bi idaztietan sarturik ez egonik, Administrazioak salbuespen gisa izenpetzen dituenak, horien xedeari administrazio-organoen jardun arruntak ezin diotenean aurre egin.

5. Botere publikoei berez dagokien aginpidea erabiltzea beharrezko duten zerbitzuak ezin izango dira kontratu horien objektu izan.

Zioak: Parlamentari honen beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz.

56. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

20. artikuluko a), b) eta c) letrei dagozkien lerroaldeetan honako hau gehitzea proposatzen da:

"...baldin eta hori enplegatu publikoek ezin badute egin. Beti ere, laguntza teknikoko eginkizunak burutu ahal izan ditzaten horien prestakuntza bermatuko da."

Zioak: Administrazio Publikoak behar adina giza baliabide eduki ohi du kasu askotan, behar bezalako efikaziaz laguntza teknikoko lanei ekiteko.

57. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

20. artikuluari aurkezturiko emendakina, d) letraren ondoren 1 bis puntua gehitzeko, honela dioena:

“1 bis) Zerbitzu-kontratuak dira xedea betetze-ko honelako jarduerak beharrezko dituztenak:

a) Teknikoak, ekonomikoak, industriakoak, merkataritzakoak edo antzeko izaerako beste edozein, baldin eta laguntza-kontratueta edo Titulu honetako beste kapitulueta araturikoetan sarturik ez badaude.

b) Administrazioaren funtzionamendurako osagarri direnak.

Zioak: Batzorde Bereziak azter zezan Administrazioak prestatu zuen aurreko zirriborroak puntu honi dagokionez zuen idazkerari osatuago eta egokiago iriztea.

58. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

20. artikuluari lerroalde bat gehitzeko emendakina.

3. Laguntza-kontratuak arautu behar dituzten baldintza-pleguez haien objektua ahalik eta xehe-tasunik gehienekin eta modurik teknikoenean adierazi beharko dute; ordaindu ahal izateko egingo den aurrekontu-hornidurak zerikusia izan beharko du merkaturako prezio errealararekin, horrela kontratazioa proposamen erakargarri bat izan dakien balizko lizitatzaila guztiei.

Zioak: Behar bezala ordaintzea, eskaintzaileek kalitaterik onenak aurkeztu ahal izan ditzaten.

59. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

20. artikuluari lerroalde bat gehitzeko emendakina.

4. Baldintza-plegueta, kontratuan edo ondorengo idatzi batean adierazitako administrazio-menpekotasuna daukanaren zuzendaritzapean jardungo dute laguntza-kontratuaren esleipen-hartzaile guztiek.

Zioak: kontraturiko lana barne administrazio-zuzendaritzari lotzea.

60. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

20. artikulua ondoren beste artikulua bat gehitzeko emendakina.

Testua: “Kontratu txikiak”

“Aholkularitza- eta laguntza-kontratuak kontratu txikitat hartuko dira haien zenbatekoa 2.000.000 pezeta baino gehiagokoa ez denean.

Zioak: Beharrezkotzat jotzen da hori sartzea.

61. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

20. artikulua ondoren beste artikulua bat gehitzeko emendakina, honako testua izango duena:

“21. artikulua. Gaitasun- eta bateragarritasun-betekizunak.

1. Kontratu hauetan, Foru Lege honek galdaturiko baldintza orokorre gain, kontratistek kontratuaren objektuarekin zerikusi zuzena duen helburu edo jarduera duten pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dute, estatutuen edo fundazio-arauen arabera eta behar bezala frogatuz, eta kontratua behar bezala bete ahal izateko adina pertsona- zein gauza-bitarteko duen antolamendu bat eduki beharko dute.

2. Obra eta instalazioen burutzea zaintzea, ikuskatzea, kontrolatzea eta zuzentzea objektutzat dituzten kontratuak, pleguez espreski eta justifikatuz aurkakoa xedatzen dutenean izan ezik, ezin izango zaizkie esleitu kasuan kasuko obra-kontratueta esleipen-hartzaile gertatu diren enpresa bereber, ezta 2. artikulua adierazitako moduan horiei loturiko enpresei ere.

Zioak: Betekizun horiei dagokiena legearen une honetan aipatzea.

21. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

62. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

21.1 artikulua aldatzeko emendakina, testu honekin:

1.- Laguntza kontratuek hasieran ezin izango dute urtebetekoa baino indarraldi luzeagoa izan, kontratuan alderdien arteko adostasunez luzapena egitea aurreikusi ahal izango bada ere. Kontratuaren epea amaitzean kontratu hori mantentzearen egokitasunari buruzko balioespena egingo da. Kontratuaren iraupen osoak, luzapena barne, ezin izango du bi urte baino gehiagokoa izan.

Zioak: Egiaztatu ahal izan da urtebete baino epe luzeagoetarako sinaturiko laguntza teknikorako kontratu askotan ez dela ematen laguntza egoikia zerbitzu askotan; alde batetik, erabilitako teknikak, kasu batzuetan, zaharkituak geratu direlako, eta, bestalde, kontratuaren objektu den kausa existitzeak ez duelako zentzurik.

63. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

21.1 artikuluko lehen lerroaldea aldatzeko emendakina

“1. Laguntza-kontratuek ezin izango dute hasieran lau urte baino gehiagoko indarraldirik izan, Administrazio kontratuegileari aplikatzekoa den aurrekontu-arauan ezarritako baldintza eta mugekin; hala ere, kontratuan alderdien arteko adostasunez indarraldia bukatu aurretik luzapena egitea aurreikusi ahal izango da. Kontratuaren iraupen osoak, luzapenak barne, ezin izango du sei urte baino gehiagokoa izan.”

Zioak: Komenigarria dirudi administrazio publikoen kasuan kasuko aurrekontu-arauetan ezarritako baldintza eta mugetara jotzeak.

64. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

21. artikuluko 1. puntuko 1. lerroaldeari gehiketa egiteko emendakina.

“Laguntza”ren ondoren “aholkularitza eta zerbitzu” gehitzea proposatzen da (gainontzekoa berdin).

Zioak: Aurreko emendakinari jarraituz.

22. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

65. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

22.1 artikulua kentzeko emendakina.

Bigarren lerroaldea kentzea proposatzen da.

Zioak: Estatuko legean jasota badago ere, Gobernuko Foru Legeko 2. artikuluan xedaturikoren aurka dago, eta hori eztabaidatzea merezi du, exagerazioa baitirudi.

66. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

22. artikuluko 2. idazatia kentzeko emendakina.

2. idazatia ken dadila proposatzen da.

Zioak: Gobernuaren zerbitzu nagusiek edo gure Komunitatean eratu behar den organo aholkulariak eginiko txostena.

67. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko emendakina. 22. artikuluko 1. idazatikoa azken lerroaldea honako testu honekin ordeztuta proposatzen da:

“Espedientean entzun egingo zaio kontratistari eta era berean, Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan, kontratazio-organismoaren zerbitzu juridikoak txostena luzatuko du.”

Zioak: kontratazio-organismoaren zerbitzu juridikoak luzaturiko txostenaren beharra antolamenduari dagokion gai bat da; beraz, Foru Komunitateko Administrazioaren esparruari dagokionean bakarrik ezar daiteke. Toki-entitateen esparruan, horien toki-araubideko araudi berekiak ezarriko

du, hala bada, txostena beharrezkoa den, baita hori luzatzea noren eskumena den ere.

68. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

22.2 artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

Honako hau esan ordeztu:

“Kasu hauetan, nahitaezkoa izango da Estatu-ko Kontseiluak txostena ematea.”

Honako hau esan behar du:

“Kasu hauetan, nahitaezkoa izango da Estatu-ko Kontseiluak edo Nafarroako Foru Komunitatean baliokide den organo aholkuemaileak txostena ematea”.

Zioak: Foru Komunitatearen eskumen bat da, eta horrelakorik noizbait egon daitekeen ezin daiteke ahatz.

25. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

69. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

25.1.d artikulua kentzeko emendakina.

d) puntua ken dadila proposatzen da.

Zioak: Gehiegikerietarantz eta lehia murrizte-
rantz lerraturiko interpretazioa eragin dezake. Ez dago Estatu-ko legean.

70. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

25. artikulua kentzeko emendakina.

25. artikuluko 2. zenbakia ken dadila proposatzen da.

Zioak: Puntu hori onartzea erabateko kontraesanean dago aurreko puntuko idazkeraren edukiarekin, eta horren asmoari eraginkortasuna kentzen dio. Ez dago arrazoi justifikaturik enpresa batek kontratu batera aurkeztu ahal izateko eskatzen zaizkion erreferentziak eman ahal ez izateko.

26. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

71. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

26 b) artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

Gehiketa: horietan izandako partehartze-maila edo kopurua zehaztuz.

Zioak: Partehartze-maila ezagutuz gero, kontzeptu hori irizpide sendoago batez balioesten da.

72. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

26 c) artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

Gehiketa: eta obretan erabiliko dituen.

Zioak: Obrak burutzeko edukiko dituen makinak bakarrik aipatuz ez da bermatzen horiek esleituta dituenik; beraz, balioespena oker egin daiteke.

73. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

26. artikuluari f) letra gehitzeko emendakina. Honela dio:

“f) Laneko segurtasun eta higienerari buruzko ziurtagiria, indarreko araudia betetzeari buruzkoa, eskudun den administrazio publikoak luzaturikoa.”

Zioak: Sindikatuen eskaera hau aintzat hartze-ari egoki eta beharrezko deritzogu.

28. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

74. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

28. artikuluari “f.bis” letra “f)” letraren ondoren, gehitzeko emendakina, honela dioena:

f.bis) "Plantila osatzen duten langile aldi baterako zein finkoen zerrendari buruzko deklarazioa".

Zioak: asmoa da jadanik 28. artikuluan ezarritzea enpresa baten kaudimen tekniko edo profesionala bere langileria finkoaren tamainaren arabera ere badela, eta, beraz, bere aldi baterako langileen tasa txikiagoaren arabera ere.

29. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

75. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

29. artikulua aldatzeko emendakina. a) letra ordeztea proposatzen da, honela idatzia gera dadin:

"a) Epai irmoaren bidezko zigorra izatea, falsukeria edo jabetzaren aurkako delituak direla kausa, edo Auzipetze Kriminalari buruzko Legeko IV. liburuiko II. Tituluak aipatzen duen prozeduran prozesatuta egotea funtzionario eroskeriagatik, diru publikoak gaizki erabiltzeagatik, influentzia-trafikoagatik, funtzionarioek debekaturik dituzten negoziazioetan aritzeagatik, isilpeko informazioa jakinarazteagatik, informazio pribilegiatua erabiltzeagatik edo Ogasun Publikoaren aurkako delituengatik.

b) Kontratatzeko debekuak pertsona juridikoak ere hartuko ditu, beren administratzaile edo ordezkariak arestian aipaturiko egoeretan daudenean, pertsona juridiko haien izenean edo haien onurarako egindako jarduketan ondorioz edo delituaren subjektu aktibo izateko eskatzen diren baldintza, ezaugarri edo harremanak tartean dituzten jarduketan ondorioz. Baita ere honako pertsona juridiko hauek hartuko ditu: kapitalaren gehiengoa egoera horietan beraietan aurkitzen diren pertsona dutenak.

Zioak: irabaziak lortzeko asmoz politikariak eta funtzionarioak usteltzen jarraitzeko tentaldia izan lezaketentzat zorrotasun handiagoa ezartzea.

76. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

29. artikuluari leerroalde bat gehitzeko emendakina.

1) Eskaintza aurkeztea esleipen-prozesua aldatzeko asmoz.

Zioak: posibilitate hori ekiditea.

30. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

77. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

30. artikuluko 2. puntua ordezteko emendakina. Honela idatzita geratuko da:

2) Aurreko artikuluko a) eta d) letretan aurreikusitako kasuetan oinarrituriko kontratazio-debekuak kontratazio-organoek automatikoki onartuko dituzte. Epai irmoz izandako kondenaren kasuan izan ezik, debekua luzatu egingo da hori sortarazten duen egoerak irauten duen bitartean. Kondenapeaia irmoa denean, egoki den prozedurari hasiera emango zaio debekuaren norainokoa zehazteko.

Gainontzeko kasuetan, kontratatze debekuak beharrezko izango du alde aurretik horretarako deklarazioa egitea prozedura baten bitartez. Prozedura hori ebaztean, espreski adieraziko da debekuak zer Administrazio ukitzen duen eta zer iraupen duen.

Zioak: irabaziak lortzeko asmoz politikariak eta funtzionarioak usteltzen jarraitzeko tentaldia izan lezaketentzat zorrotasun handiagoa ezartzea.

78. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

30. artikuluko 2. puntuan ordezketak egiteko emendakina. Zehazki, "Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legean" leerroaldea beste honekin ordezteko: "Estatuko legedian".

Zioak: Arlo honetan, 13/95 Legearen testua urtarrilaren 15eko 9/96 Legeak aldatu du; horregatik, administratuari nahasmendua sor dakiok.

79. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

30. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

2. puntuan haxe gehitzea:

“...eta hori aldatzen duen urtarrilaren 15eko 9/1996 Legeko Lehen Xedapen Gehigarrian”.

Zioak: Gaiaren garrantzia dela-eta, beharrezkotzat jotzen dugu hori garbi adieraztea.

80. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

30. artikuluari aurkezturiko emendakina, 2. bis) puntua gehitzekoa, honela dioena:

2. bis) Debekuaren norainokoa erregelamendu bidez adieraziko den moduan zehaztuko da, kontuan hartuz, hala bada, enpresariarengan dolua edo ageriko fede txarra dagoen eta interes publikoei eragindako kalteen larritasuna. Ez du, oro har, bost urte baino gehiago iraungo, edo zortzi baino gehiago, epai irmoz izandako kondenan oinarritutako debekuei dagokienean. Beti ere, men egingo zaie aipaturiko puntuei buruz –batez ere, kontratatze debekuaren iraupenari buruz– epai edo ebazpen irmoak egingo dituen aipamenei.

Zioak: Lege-proiektuak gaur egun xedatzen duena hobetzea, lehen Batzorde Bereziak azterturiko testuaren zati bat berreskuratuz. Garrantzitsua da egingo den legeak berak orientabidea eta borondatea adieraztea kontratatze debekuan datzan zehapenaren mugei dagokienean.

81. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

30. artikuluko 3. puntua aldatzeko emendakina. Honela geratuko da:

3) Aurreko artikuluko a) letran, epai irmoz izandako kondenaren kasuan, eta d) letran aurreikusita dauden egoeretan kontratatze debekua deklaratzeko eskumena Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legean aurreikusitakoari egokituko zaio, aplikazioari eta eragin-eremuari dagokienean

Aurreko artikuluko c) eta g) letretan aurreikusitako kasuengatik... (gainontzekoa berdin).

Zioak: Aurreko beste emendakin batzuekin koherentzia mantendu ahal izateko moduko idazkera izatea.

82. EMENDAKINA**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

30. artikuluko 3. idazkia aldatzeko emendakina.

30. artikuluko 3. idaztatiko hirugarren lerroaldea honako testu honekin ordezteko proposatzen da:

“Idazki honetan aipatutako kausetan oinarrituriko kontratatze debekua deklaratu ahal izateko Foru Komunitateko Administrazioak jarraitzen dituen prozeduretan, Administrazio Kontrataziarako Batzorde Aholkulariaren eginkizuna izango da erabaki-proposamena formulatzea”.

Zioak: Emendakinaren helburua Administrazio Kontrataziarako Batzorde Aholkulariaren eskuhartzea mugatzea da, kontratatze debekua deklaratzeko asmoz Foru Komunitateko Administrazioak buruturiko prozeduretara, hain zuzen ere. Ildo horretatik, toki-entitateetako kontratazio-organismoen buruturiko prozedurak direnean, horretarako eskumena dutenez gero, kontratatze debekua deklaratu ahal izateko ez da beharrezkoa izango Kontrataziarako Batzorde Aholkulariak formulaturiko proposamenik.

Emendakin honek proiektuko 155. artikuluko 1. idazkiari aurkezturikoa du oinarri.

83. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

30. artikuluko 4. puntua kentzeko emendakina.

Zioak: Hainbat emendakinen bitartez 30. artikulurako proposaturiko idazkera berriarekin, ez da beharrezkoa.

84. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

30. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

4. puntuaren bukaeran honako testu hau gehitzea:

...“oro har, eta zortzi urtekoa epai irmo baten ondoriozko kondenan oinarrituriko debekuei dago kienean. Beti ere, men egingo zaie aipaturiko puntuei buruz –batez ere, kontratatze debekuaren iraupenari buruz– epai edo ebazpen irmoak egingo dituen aipamenei. Kasu horretan, kontratatze debekuak automatikoki aplikatuko dituzte kontratazio-organoek.”

Zioak: Estatuko Legetik ondorioztatzen den zerbait sartzea.

85. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

30. artikuluko 5. puntuan Administrazio Kontratazioarako Batzordeari buruz egiten diren aipamen guztiekin batera doan “Aholkulari” hitza kentzea.

Balio izan beza honek Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratazio buruzko Foru Legearen testuan zehar zentzu berean eginiko beste edozein aipamenei dagokionean ere.

Zioak: Administrazio kontratazioari buruzko Batzorde Berezian aztertutako testuan ezarritako formulazioa mantentzea egokiagozat jotzen da, Kontratazio Batzordearen aholkulari-izaera Legeak horretaz 155. artikuluan ematen duen definizioan bertan ezarria baitago.

86. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

30.5 artikuluari lerroalde bat gehitzeko emendakina.

Erregelamendu bidez zehaztuko diren moduan eta epeetan, Administrazio Kontratazioarako Batzorde Aholkulariak igorri egingo die lege honen aplikazio-eremuan aurkitzen diren Administrazioei kontratatze debekua daukaten pertsona fisiko edo juridikoen zerrenda.

Zioak: Kontratistek kontratatze debeku-egoren berri alde aurretik izatea.

32. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

87. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

32. artikulua aldatzeko emendakina. Honela idatzita geratuko da:

“32. artikulua. Zuzendaritza-eginkizunak.

Obra edo instalazioen burutze edo mantentzea edo antolamendu-sistemen ezarpena zuzendu, gainbegiratu edo kontrolatzeko eginkizunak beti Administrazioak burutuko ditu, bereak diren langileekin”.

Zioak: Obren bilakaeraren gain behar adinako kontrola ziurtatzeko, aipaturiko lanak pribatizatzea desegokitzen jotzen dugu.

88. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

32. artikulua aldatzeko emendakina.

“32. artikulua. Ahalmen- eta bateragarritasun-betekizunak laguntza-kontratuetan.

1. Laguntza-kontratuetan, Lege honek galdutako baldintza orokorrez gain, proposamen edo eskaintza ekonomikoak aurkeztu dituzten kontratuaren objektuarekin zerikusi zuzena duen helburu edo jarduera duten pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dute, estatutuei edo fundazio-arauei jarraituz edo behar bezala frogatuz, eta kontratua behar bezala bete ahal izateko adina pertsona- zein gauza-bitarteko duen antolamendu bat eduki beharko dute.

2. Obra edo instalazioak burutzea edo mantentzea edo antolamendu-sistemen ezarpena zuzendu, ikuskatu edo kontrolatzea objektu gisa duten laguntza-kontratuetan, pleguek espreski eta justifikatuz aurkakoa xedatzen dutenean izan ezik, ezin izango zaizkie esleitu kasuan kasuko obra-kontratuetan esleipen-hartzaile gertatu diren enpresa berberei, ezta horiei loturiko eta Foru Lege honek 2.3 artikulua definitzen dituen enpresei ere.”

Zioak: lizitatzailaren jarduerak zerikusi zuzena izan dezala kontratuaren objektuarekin.

89. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

32. artikuluari gehiketa egiteko emendakina. Bi lerroalde gehitzea eta gainontzekoak zenbatzea proposatzen da:

Gainera, baldintza-pleguan honako betekizun hau agertuko da: laguntza-kontratuaren esleipena lortu nahi dutenek zinpeko deklarazioa aurkeztuko dutela, ziurtatuz sozietate-kapitalaren ehuneko bost baino gehiagoren titular diren bazkideak, edo, hala bada, jabeak, laguntza teknikoak xedetzat duen kontratuaren esleipen-hartzaile den enpresako bazkideak ez direla ez beraien izenean ez tartean jarritako pertsona baten bidez, ezta haien aurrekoak, ondorengoak edo ezkontideak, eta aurreko hiru urteetan ere ez direla izan.

Honako beste betekizun hau ere agertuko da: esleipen-hartzaile suertatzen den enpresako goimailako teknikariek inolako harreman profesional, ekonomiko edo lanekorik ez izatea laguntza teknikoak xedetzat duen kontratuaren esleipen-hartzaile den enpresarekin aurreko hiru urteetan zehar.

Zioak: Bi esleipenak erabat bereiztea.

**34. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****90. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

34. artikuluko 1. idazatiari aurkezturiko kentze-ko emendakina.

34. artikuluko 1. idazatik 1. lerroaldean honako hau kentzea proposatzen da:

“...eta batera aurkezten diren lizitatzailleekin. Lehenengo kasuan...”

Zioak: Foru legearen berrikuntza hori ez da ulertzen.

91. EMENDAKINA**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

34. artikulua aldatzeko emendakina.

“34. artikulua. Enpresari-batasunak eta batera aurkezten diren lizitatzailleak.

1. Administrazioak kontratuak sinatu ahalko ditu helburu horretarako elkartzen diren aldi baterako enpresari batasunekin eta batera aurkezten diren lizitatzailleekin. Lehenengo kasuan batasun hori eskritura publiko batean formalizatu beharko da, baina beharkizun hori ez da eskatuko harik eta esleipena bere alde gauzatu arte.

Aurreko lerroaldean aipaturiko kasuetan, elkartzen diren lizitatzailleak solidarioki egongo dira behartuak Administrazioaren aurrean, horietako bakoitzaren partehartzea adieraziko dute eta ordezkari edo ahaldu bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik datozen beharkizunak bete eta eskubideak baliatzeko ahalmen askietsia izango duena, kontratua iraungi arte, deusetan galarazi gabe enpresek kobraketa eta ordainketa garrantzitsuetarako beste ahalmen mankomunatu batzuk ematea.

2. Bater a aurkezten diren lizitatzaillei enpresari batasunen sailkapenari buruzko xedapenak aplikatuko zaizkie.

3. Sailkapena beharrezkoa den kasuetan, Espainiako enpresariak, Europako Batasunetik kanpokoak zein Europako Batasunekoak batzen badira edo elkarrekin parte hartzen badute, lehenbiziko biek sailkapena frogatu beharko dute eta azkenekoek, horrelakorik ez badute, gaitasun ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala.

Zioak: Modu argiagan eta osatuagan idaztea.

92. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

34.1 artikuluko lehen lerroaldea aldatzeko emendakina.

Honako honen orde: “...batera aurkezten diren...”

Honakoa jar bedi: “...batera parte hartzen duten...”

Zioak: Zehatzagoa dirudi, aurreko beste emendakin bat ez bada onesten.

93. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

34. artikuluko 1. puntuko bigarren lerroaldeari aurkezturiko aldaketa-emendakina.

“Elkartzen diren lizitatzailleak” beste honekin ordeztu: “Enpresari batasunak eta elkartzen diren lizitatzailleak”.

Zioak: Erantzukizun solidarioa batasunen eta batera aurkeztzen diren lizitatzailleen kasuan eskatu behar da.

94. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

34. artikuluko 1. puntuko bigarren lerroaldeari aurkezturiko aldaketa-emendakina.

“Elkartzen diren lizitatzailleak” beste honekin ordeztu: “Enpresari horiek”.

Zioak: Testua aurreko hainbat emendakini egokitzea.

95. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

34. artikuluko 1. idazatik bigarren lerroaldeari gehiketa egiteko emendakina.

Lerroaldea honako testuarekin has dadila proposatzen da:

“Bi kasu horietan, elkartzen diren lizitatzailleak...” (gainontzekoa berdin).

Zioak: Egungo idazkerak, lizitatzeko bi batasun-aukera ematen dituen horrek, sor dezakeen nahasmena ekiditea.

96. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

34. artikuluko 2. idazatiari aurkezturiko kentze-emendakina.

34. artikuluko 2. idazatik lehen lerroaldeko laugarren lerroan “...edo elkarrekin parte hartzen

badute,...” espresioa kentzea eta 34. artikuluko 2. idazatik bigarren lerroaldea ezabatzea proposatzen da.

Zioak: Aurreko emendakin baten ondorioa.

**35. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****97. EMENDAKINA****FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

35. artikuluko 1. idazatiari gehiketa egiteko emendakina.

“obra”ren ondoren “aholkularitza” jar dadila proposatzen da.

Zioak: Beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz.

98. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

35. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

1. puntuaren bukaeran hauxe gehitzea proposatzen da:

“Baldintza hori kontratu baten lagapen-hartzaitzeari ere eskatuko zaio, lagatzaileari eskatu baldin bazaio.”

Zioak: Baldintza horren beharra espreski azpimarratzea.

99. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

35. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

3. puntuaren bukaeran honako hau gehitzea proposatzen da:

“...eta, beti ere, behar bezala sailkaturiko ezein kontratistatik lizitaziora agertu ez baldin bada.”

Zioak: arauari muga bat sartzea.

100. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

35. artikuluko 3. idazatiari gehiketa egiteko emendakina.

35. artikuluari azken idazati bat gehitzea proposatzen da.

“Toki-entitateen kasuan, horien berariazko legediak xedatzen duenari men egin beharko zaio sailkaturik ez dauden pertsonekin kontratatze baimena emateari dagokionez.”

Zioak: Komenigarria dirudi Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposaturiko gai hau eztabaidatzeak.

101. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

35. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

Artikuluaren bukaeran honako testu hau izango duen beste puntu bat gehitzea proposatzen da:

“4. Sailkapenaren ondorioetarako, erregelamendu bidez zehaztuko da, kontratuen objektuari dagokionez, zein talde orokorretan eta azpitaldetan banatu ahal izango diren horiek, beren izaera berezia dela-eta.”

Zioak: Legearen une honetan legea garatzeko beharrezkoa den ondorengo araudi baten aipamena egitea.

**36. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA****102. EMENDAKINA****FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

36. artikuluko 1. idazatiari gehiketa egiteko aurkezturiko emendakina.

Idazatia honako testu honekin has dadila proposatzen da:

1. Aurreko artikuluan xedaturikoa gora-behera, pertsona fisikoei esleitzen zaizkien aholkularitza-, laguntza- eta zerbitzu-kontratuetan,... (gainontzekoa berdin).

Zioak: Parlamentari honen beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz.

**37. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****103. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

37. artikuluko 2. puntuko azken lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: Errepikakorra da, behar bezala adierazita baitago Estatuko legedian ezarritako arau eta irizpide berak aplikatuz egingo dela.

104. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

37. artikuluko 2. puntua aldatzeko emendakina.

“Ekonomi eta Ogasun kontseilaria” lerroaldea honako testu honekin ordezteak proposatzen da:

“Nafarroako Gobernuak, Administrazio Kontratazioarako Batzorde Aholkulariak proposaturik... (gainontzekoa berdin).

Zioak: Eginkizun horiek Gobernuarentzat, organo kolegiatu gisa, gordetzea.

**38. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****105. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

38. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: praktikan ez da inongo behin-behineko bermerik exekutatu, eta artikulua kentzeak burokrasia kentzearen kontzeptua abiarazten du.

106. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

38.1 artikulua aldatzeko emendakina.

“ahalmena dute...adierazteko” esan ordez “adieraziko dute” esan behar du.

Zioak: 13/1995 legeak erabiltzen duen esamolde berbera erabiltzea.

107. EMENDAKINA**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

38.1 artikuluko lehen lerroaldea aldatzeko emendakina.

“1. Kontratazio organoek ahalmena dute administrazio klausula partikularren orrian edo kontratuaren baldintzetan adierazteko beharrezkoa dela aurretik kontratuaren aurrekontuaren % 2ko behin-behineko bermea kontratazio organoaren eskura jartzea, erabilitako prozedura edozein delarik ere. Kontratuaren aurrekontutzat Administrazioak finkatzen duen lizitazio oinarria hartuko da, salbu eta aurrekontua aurretik zehaztu ez den kasuetan, horietan kontratazio organoak estimazio bidez finkatuko baitu.”

Zioak: “Kontratuaren baldintzak” ere aipatzea, behin-behineko bermea prentsan iragarritako prozedura negoziatuan galda daitekeela argitzeko.

108. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

38. artikuluko 1. idazatiari gehiketa egiteko emendakina

38. artikuluko 1. idazatiari beste lerroalde bat, bigarrena izango litzatekeena, gehitzea proposatzen da. Testua haxe litzateke:

“Administrazio klausula partikularren orrian, kontratazio organoak behin-behineko bermea ematetik salbuetsi ahal izango ditu honako enpresa hauek: Lege honetako 64. artikuluko 1. idazatikoa a) letran adierazitako zenbatekoa baino baxuagoa duten obra kontratuetan eta 64. artikuluko 1. idazatikoa c) letran adierazitako zenbatekoa baino baxuagoa duten laguntza kontratuetan lizitazioa agertzeko eskatzen den sailkapena dutela frogatzen dutenak. Lege honetako 64. artikuluko 1. idazatikoa b) letran adierazitako zenbatekoa baino baxuagoa duten hornidura kontratuetan eta, Estatuko legedian ezarritakoaren arabera, sailkapena beharrezkoa ez den laguntza kontratuetan ere, berme hori ematetik salbuetsi ahal izango du.

Zioak: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren proposamen hau eztabaidatzeari interresgarri deritzogu.

109. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

38.2.a artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

Bukaeran haxe gehitzea proposatzen da:

“Kasuan kasuko eskudiru, titulu edo ziurtagiriak Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Diruzaintzan gordeko dira.”

Zioak: Legean balizko hutsune bat betetzea.

110. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

38. artikuluko 3. idazatia aldatzeko emendakina.

38. artikuluko 3. idazatian “...kontratuaren esleipena egin eta berehala...” espresioaren ordez honako testu hau jartzea proposatzen da:

“...kontratuaren proposamena edo esleipena egin ondoren...”

Zioak: Esleipen era enkantea denean, behin-behineko bermea kontratazio mahaiak esleipen proposamena egin eta berehala itzultzen zaie interesatuei, eta esleipen hartzailearentzat bakaerri geratuko da atxikia.

111. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

38.3 artikulua aldatzeko emendakina.

Honako honen ordez:

“baina esleipen hartzaileari atxiki egingo zaio”

Honako hau jartzea proposatzen da:

“baina esleipen proposamenean aipatutako enpresariari edo esleipen hartzaileari atxiki egingo zaio”.

Zioak: Ñabardurak sartzea eta testua osatzea.

112. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

38. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

4.aren ondoren beste puntu bat gehitzea proposatzen da:

“5. 81.2.b artikulua aipatzen dituen ausarkeria presuntzioko kasuetan, horrek ukitzen dituen enpresariantzat eta ez daudenen artetik onena den eskaintzailearentzat atxikia geratuko da bermea, esleipen ekitaldia onetsi bitartean.”

Zioak: Legeko balizko hutsune bat betetzea.

39. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

113. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

39. artikuluko 2. idaztiari gehiketa egiteko emendakina.

“Laguntza”ren ondoren honako testu hau tartean jartzea proposatzen da:

Aholkularitza eta zerbitzu... (gainontzekoa berdin).

Zioak: Beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz.

114. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

39.2 artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

...aurreko lerroaldekoaren antzeko sailkapen ziurtagiria izatea.

Zioak: Atzerrian mota bereko ziurtagiriak baldin badaude, guztiei tratamendu bera ematea.

115. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

39. artikuluko 3. idaztia aldatzeko emendakina.

39. artikuluko hirugarren idaztiko lehen lerroan dagoen “Aurreko idazatian...” hitzen ordeztu “Lehen idazatian...” jartzea proposatzen da.

Zioak: Errakuntza hori 2. idaztia sartzean gertatzen da. Idazti hori ez dator bat 13/1995 Legeak aurreikusitakoarekin.

116. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

39.3 artikuluko lehen lerroaldea aldatzeko emendakina.

39. artikuluko hirugarren idaztiko lehen lerroaldeko lehen lerroko “Aurreko idazatian...” hitzen ordeztu “Lehen idazatian...” jartzea proposatzen da.

Zioak: Emendakin honen arrazoia hertsiki teknikoa da. Berme orokorrak behin betiko bermea ordeztu du, eta bigarren hori 39. artikuluko 1. idaztian aurreikusten da. 2. idaztian behin betiko bermea eratzeko moduak bakarrik aurreikusten dira. Beraz, 1. idaztia da aipatu behar dena, aurreko idaztia izan ordeztu.

117. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

39.3 artikuluko bigarren lerroaldea aldatzeko emendakina.

“Berme orokorrak ziurtatu egiten du, oro har eta etenik gabe, Administrazio berarekin edo kontratazio organo berarekin sinaturiko eta indarra duten kontratu guztietatik datozkion betebeharrak betetzeko esleipen hartzaileak duen erantzukizuna, kasuan kasuko kontratuaren esleipen prezioaren % 4ra bitarte, deusetan galarazi gabe Administrazioari egin behar izan lekiokkeen kalte eta galeren ordainketa berme orokorraren gainontzekoaren kargura egitea.”

Zioak: Proiektuko 8. Xedapen Gehigarrian definituriko Administrazio kontzeptua erabiltzea, eta ez “Administrazio Publiko” bezalako kontzeptu zehaztugabe bat.

118. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

39. artikuluko 4. puntua aldatzeko emendakina.

“...esleipen prezioaren...” hitzak beste hauekin ordezteak: “...aipaturiko aurrekontuaren...”.

Zioak: 13/1995 Legeak xedaturikoari egokitzeara.

119. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

39.5 artikulua aldatzeko emendakina.

“...esleipenaren % 60 baino gutxiagokoa izango ez den behin betiko bermea jar dezan, 1. idazatian aipatu denaren ordezkari (100eko 4), eta hortaz, aurreko artikuluan adierazitakoa ez da aplikatuko. Berme hori kitatzeko 45. artikuluan xedatutakoari jarraikiko zaio.

Kontratatik hala eskatuz gero eta kontratuaren objektua Administrazioak nahi bezala betetzen joan ahala, bermearen zenbatekoa kontratuaren bilakaerarekin proportzioa mantentzeko murriztu egingo da, muga honakoxea izanik: bermea esleipen prezioaren % 25ean mantentzea kitapenerarte.

Zioak: ausarkeria egoera guztiak ez dira berdinak.

120. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

39.5 artikulua aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordezkari:

“esleipen prezioaren % 50eko”

Honako hau esan behar du:

“esleituriko kontratuaren zenbateko osoaren adinakoa”

Zioak: Foru legearen bitxitasun honek ez dirudi arrazoizkoa.

40. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**121. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

40. artikulua kentzeko emendakina.

2. eta 3. puntuak kentzea.

Zioak: Ez zaigu iruditzen puntu horiek sartzea justifikatua dagoenik.

122. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

40.3 artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Bermea komenigarria da.

123. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

40. artikulua aldatzeko emendakina.

1.b idazatia 2. puntu berri batekin ordezteak, honako testua izango duenarekin, hain zuzen:

“2. Behin-behineko edo behin betiko bermea jartzea ez da beharrezkoa izango honako hornidura kontratu hauetan:

a) Zerbitzu publikoen enpresa kontzesio har-tzaileekin hitzarturikoak, 17.2.a) artikuluan adierazi horniduretarako baldin badira.

b) Prozedura negoziatuaren araubidekoak, kontratatik ondasun kontsumigarriak edo hondatu daitezkeenak berehala ematen dituzten, prezioa ordaindu baino lehen, bermealdia dagoen kasuetan izan ezik.

c) Enpresa hornitzailea atzerrikoa denean eta kontratua nazioarteko merkataritza usadioei jarraikiz bermatzen duenean.”

Zioak: Foru Legearen testua osatzea.

124. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

40. artikuluko 3. idazatiari gehiketa egiteko emendakina.

“Laguntza”ren ondoren honako hau tartekatzeari proposatzen da:

Aholkularitza eta zerbitzu... (gainontzekoa).

**41. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****125. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

41. artikuluko 1. idazatia aldatzeko emendakina.

“Esleipen hartzaileak kreditatu beharko du hamar eguneko epean...”

Zioak: Izapidatzeko epeak laburtzea posible egitea.

126. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

41. artikuluko 1. puntua aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordez: “hogei eguneko epean”

Honako hau esan behar du: “hamabost lane-guneko epean”

Zioak: foru legeak proposatzen duen aldaketa ez zaigu justifikagarria iruditzen.

127. EMENDAKINA**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

41. artikuluko 3. idazatia aldatzeko emendakina.

“Kontratua behin edo gehiagotan aldatzearen ondorioz esleipen prezioak % 10 baino handiagoa den portzentaian aldaketa pairatzen baldin badu, behin betiko bermea beharrezkoa den neurrian egokitu beharko da, prezio harekin behar den portzioa izan dezan.

Bermea egokitzeko epea 1. idazatian aipaturikoa izango da, aldaketaren jakinarazpena egin eta...”.

Zioak: Garrantzi gutxiko aldaketen ondorioz bermea egokitzeko izapideak egin behar izatea saihestu nahi da. Honela, espedienteen izapidatzea sinplifikatu egiten da.

128. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

41. artikuluko 3. puntua aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordez: “aldaketaren jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera kontatua”

Honako hau esan behar du: “kontratua aldatzen den egunetik kontatua”.

Zioak: Foru legeak proposatzen duen aldaketa ez zaigu justifikagarria iruditzen.

**42. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA****129. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

42. artikulua ondoan beste artikulua bat gehitzeko emendakina:

43. artikulua. Bermeak kitatzea.

Bermea ez da itzuliko, ezta kitatuko ere, bermealdia amaitu eta kasuan kasuko kontratua alderdien adostasunarekin bete edo kontratistak errurik izan gabe amaiarazten den arte.

Zioak: 13/1995 legeak proposaturikoa idatziz jartzea.

**45. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****130. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

45. artikuluar aurkezturiko kentzeko emendakina.

5. puntua ezabatzea proposatzen da.

Zioak: hori sartzek ez dirudi justifikagarria.

131. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

45. artikuluko 1. idazatia aldatzeko emendakina.

Lerroaldearen bukaeran, "bermea itzuli edo abala kitatu egingo da" esan ordez, honako hau esan behar du: "behin betiko bermea itzuli edo kitatu egingo da".

Zioak: Abala behin betiko bermea jartzeko aukeretako bat besterik ez da.

132. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

45. artikuluari lerroalde bat gehitzeko emendakina.

6. Prezioa 500 milioikoa baino handiagoa duten obra kontratuen kasuan, behin betiko bermeak itzuli eta kitatu aurretik iragarpenak egingo dira bermea amaitzen den dataren berri emateko, kaltetu gisa euren eskubidea defendatzeko kome-ni zaien moduan jardungo duten interesaturiko hirugarrenak kontuan hartuz.

Zioak: Posible egitea kontratistaren ekintzak kalteturiko langile eta lurzoru jabeen defentsa, adibidez.

46. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

133. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

46. artikuluko 3. puntua kentzeko emendakina.

Zioak: Hori sartzek ez zaigu justifikagarria iruditzen.

134. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

46. artikuluari aurkezturiko kentzeko emendakina.

4. puntuan honako testu hau kentzea: "eta horien ordainketaren ordena".

Zioak: Ñabardura hori ez da ulertzen.

135. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

46.1 artikulua aldatzeko emendakina.

...kontratuaren gastu berekiaren onespina eta, aurreikusita baldin badaude, desjabetzapenen ordainketarena eta kalteordainena, eta, horrelakorik baldin badago...

Zioak: Desjabetzapenentarako aurrekontu kontusaila bermatzea.

49. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

136. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

49. artikuluko 1. eta 5. idazatiak aldatzeko emendakina.

Mantenimendu obren kategoria ezabatzea. Horrela, 1c) idazatiak "kontserbazio obrak" bakarrik aipatu beharko luke.

5. idazatian, puntu eta jarraiaren ondoren doan esaldia ezabatu beharko litzateke.

Zioak: Kontserbazioa eta mantenimendua, obrei aplikaturik, sinonimoak dira, eta araubide bereziturik ere ez daukate.

**50. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK**

137. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

50.1.f) artikulua aldatzeko emendakina.

f) Obra egingo deneko lurren azterketa geoteknikoa, salbu eta Administrazioak beharrezkotzat hartzen ez badu.

Zioak: Administrazioa da erabakiko duena.

138. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

50.1.f) artikulua aldatzeko emendakina.

Honako honen orde: "Salbu eta beharrezkotzat hartzen ez bada"

Honako hau jarri: "Salbu eta obraren izaerarekin bateraezina denean".

Zioak: Proiektuko proposamena zehaztugabe-egia da.

139. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

50. artikuluari bi lerroalde gehitzeko emendakina.

h) Ingurugiro eraginari buruzko azterketa, bai beharrezkoa denean bai Europako Komunitateko araudian adierazitako kasuetan, araudi hori barne ordenamenduak bereganatu ez baldin badu ere, Nafarroako Errepideei buruzko Planean aurreikusitako kasuetan eta komenigarritzat jotzen denean.

i) Proiektuak ukituriko ondasun eta eskubideen zerrenda.

Zioak: Komenigarritasuna eta ingurugiro proiektuak ukituriko eskubideak, hala nola desjabetzapen ondorioetarako okupatuko diren lursailak zehaztea.

140. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

50.1 artikuluari lerroalde bat gehitzeko emendakina.

h) Laburpen dokumentu bat, honako eduki honekin: proiektuaren bideragarritasuna, eginiko aukeraren justifikazioa, egiten dituen ekarpenak eta intereseko bestelako datuak. Dokumentu horrek guztiek ulertu ahal izateko terminologia erabiliz idatzita beharko du egon.

Zioak: Ezagutza ahalbidetzea interesatuei eta oro har jendeari.

141. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

50.2 artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

Artikuluko 2. idazatian honako lerroalde hau sartzea proposatzen da: "Kontserbazio kontratuetan ez da beharrezkoa izango neurketen egoera sartzea."

Zioak: Proposamena horien ezaugarri berezietan dago oinarritua; horietan, oso zaila da kontratuen indarraldian burutu beharko den obra aurreikustea.

142. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

50. artikuluko 4. puntua kentzeko emendakina.

Zioak: Ken dadin proposatutako 4. puntu horretan xedatzen dena ez da onargarria. Are gutxiago exekuzio-aurrekontuaren % 10, eginiko salbuespenaren arabera, gaindi baldin badaiteke eta ezarritako epea egokitu egiten bada. Horrek guztiz hutsaldu dezake jarraituriko esleipen prozedura.

143. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

50. artikuluko 4. puntua kentzeko emendakina.

Zioak: Puntu hori sartzek ez dirudi justifikagarria, eta horrekin bilatzen dena ere ez da ulertzen.

144. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

50. artikuluko 4. idazatiari aurkezturiko kentzeko emendakina.

Idazati horretako azken lerroaldea ken dadila proposatzen da.

Zioak: Ez da egoera horretara iritsi behar.

51. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

145. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

51. artikulua aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordez: "100.000.000 pezeta-ko edo gehiagoko",

Honako hau esan behar du: "50.000.000 peze-
tako edo gehiagoko".

Zioak: Ez dirudi justifikagarria denik gure Komunitatean zenbatekoa handitzea Estatuan galdatzen denarekiko. Gainera, zenbatekoa Euro-pako monetan adierazi behar da.

146. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

51. artikulua aldatzeko emendakina.

Honako ordezketeta hau egin dadila proposatzen da: 100.000.000 pezetako zenbatekoaren ordez, 75.000.000 pezeta.

Zioak: Proiektua ikuskatzearen beharra kopuru baxuago bati lotzea.

54. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

147. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

54. artikuluko 2. puntua kentzeko emendakina.

Zioak: Legeko beste une batean sartu da jadanik, emendakin baten bidez.

148. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

54.2 artikuluko bigarren lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: kokapen desegokia.

149. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gaztelera-ko bertsio-ko 54.1 artikulua aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordez: "En este segundo supuesto..."

Honako hau esan behar du: "Cuando se dé este supuesto..."

Zioak: idazkera hobetzea.

150. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

54 bis artikulua berria gehitzeko emendakina. Testu hau izango luke:

"Aholkularitza eta laguntza kontratuaren eta zerbitzu kontratuaren prestaketa.

1. Kontratazio espedienteari txosten bat gehitu beharko zaio, kontratua sinatzeko interesa duen zerbitzuak egina. Bertan, behar bezala justifikatu beharko da kontratu horrek asetu nahi dituen beharrezkoen aurre egiteko Administrazioak dituen pertsona eta gauza baliabideen eskostasuna, ezegokitasuna edo horiek ez ugaritzearen kome-nigarritasuna.

2. Administrazio klausula partikularren orrian kontratu horien prezioa zehazteko sistema ezarriko da. Sistema hori hauetakoren bat izan ahalko da, objektua edozein delarik ere: osotasunaren gaineko hainbestekoa, obra edo denbora unitatetan oinarrituriko prezioak, edo tarifetan adierazitako lanbide-ordainsariak aplikatuz kalkulaturiko prezioak, edo modalitate horietako hainbaten konbinaketa.

Zioak: Parlamentari honen beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz.

56. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

151. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

56.1 artikuluarik gehiketa egiteko emendakina.

...eta bertan adieraziko da, besteak beste, zer kausarengatik saihesten den espediente arrunta.

Zioak: Justifikatzea egoki da salbuespena dela-eta.

57. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

152. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

57.1.a) artikuluarik honako testu hau duen beste leerroalde bat gehitzeko emendakina:

“Hartutako erabakia berehala jakinaraziko zaio Nafarroako Gobernuari.”

Zioak: egokiagoa dirudi.

58. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

153. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

58. artikuluko 1. idazatia aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordez: “...onetsi ahalko ditu...”

Honako hau esan behar du: “...onetsiko ditu...”.

Zioak: Administrazio klausula orokorren pleguak egoteak ondorengo hainbat arazo eta lan kentzen ditu.

154. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

58.1 artikulua aldatzeko emendakina.

...administrazio klausula orokorren pleguak onetsiko ditu...

Zioak: Aldez aurretik irizpideak batzea; horrek ziurtasuna ematen die kontratuei eta Administrazioari.

155. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

58.1 artikuluarik gehiketa egiteko emendakina.

Bukaeran hauxe gehitzea proposatzen da: “edo Nafarroako Foru Komunitatean horren balio-kide den organo aholkuemaileak irizpena emanda.”

Zioak: aurreko emendakinarekin koherentzia mantenduz.

156. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

58.2 artikulua aldatzeko emendakina.

Behar bezalako partehartze eta entzutearekin eta ezarriko den prozedurari jarraituz, Toki Entitateek kontuan eduki beharreko administrazio klausula orokorren pleguak onetsiko dira; horiek, berrazko arauak alde batera utziz, artikuluko honetako aurreko leerroaldean aurreikusitako pleguen antzekoak izango dira.

Zioak: Toki-enteen eta kontratisten artean irizpideak batzea.

157. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

58.2 artikulua aldatzeko emendakina.

Artikulua beste modu batean idaztea proposatzen da.

“2. Nafarroako Gobernuak, Toki Araubiderako Foru Batzordeak txostena egin ondoren, Nafarroako toki-entitateetan besteren ordezkari aplikatzeak diren administrazio klausula orokorren pleguak onetsiko ditu.”

Zioak: Prozedura hori gure araudiari hobeto egokitua dagoela dirudi.

158. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

58. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

Artikuluaren bukaeran beste puntu bat gehitzea proposatzen da, testu honekin:

“Adierazitako modu berean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak onetsi egingo ditu, hala bada, administrazio klausula orokorren pleguak, haren berariazko arauari jarraituz.”

Zioak: 1.2.b) artikuluan adierazitakoa garatzea.

59. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**159. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

59.3 artikulua aldatzeko emendakina.

3. Kontratazio organo eskudunak kasu guztietan aplikatzeak diren plegu partikularren ereduak onetsi beharko ditu, eta kontratazio kasu zehatzetarako beharrezkoak diren egokitzapenak egingo ditu.

Zioak: pleguetako irizpideak batzea.

160. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

59. artikuluari beste idazati bat, zazpigarrena, gehitzeko emendakina. Hona testua:

“Administrazio baldintza partikularren Plegu guztiek, esleipen irizpideen artean, enpresen lan egoerarena jasoko dute, kaudimen tekniko frogatzeko unean plantilan % 10 baino handiagoa ez den aldi baterako langile kopurua duten enpresak balioesteko eta horiei puntuazio ona emateko.”

Zioak: Lan egonkortasunaren alde benetako konpromisoak hartzen dituzten enpresak botere publikoek positiboki balioestea.

161. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

59. artikuluari honela dioen beste idazati bat gehitzeko emendakina:

“Administrazio baldintza partikularren plegu guztiek, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan, esleipen irizpideen artean, ezintasunak dituzten pertsonak lanean integratzearena jasoko dute, kaudimen tekniko frogatzeko unean plantilaren % 3 baino gehiago ezintasun fisiko handia, gorreri sakon eta larriak, ezintasun psikikoa edo adimen eritasuna duten langileek osatua duten enpresak balioesteko eta horiei puntuazio ona emateko.”

Zioak: ezintasunak dituzten pertsonak lanean integratzearen alde benetako konpromisoak hartzen dituzten enpresak botere publikoek positiboki balioestea.

162. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

59. artikuluari lerroalde bat gehitzeko emendakina.

7. Administrazio klausulen pleguetan kontratistak bere burua Nafarroako epaitegi eta auzitegien eskuduntzapean espreski jartzeko beharra adieraziko da; hirugarrenekin gerta litezkeen gorabeheri dagokienez, hark dauden arbitraje organoei atxikitze konpromisoa hartzen duela ere agertu-

ko da. Betebehar hori kontratua bukatu eta hiru urte igaro arte mantenduko da.

Zioak: Hirugarrenentzako bermea.

60. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

163. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

60.2 artikuluarri lerroalde bat gehitzeko emendakina.

Nahitaez agindu tekniko orokorren plegu eredu bat egon beharko da obra kontratuak exekutatzeko, eta, behar bezala arrazoiturik, kasu zehatzetara egokitu egingo da, hala behar denean.

Zioak: irizpideak batzea.

164. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

60.3 artikuluarri gehiketa egiteko emendakina.

Bukaeran honako hau gehitzea proposatzen da:

“58.2 artikuluan adierazitako prozedura aplikatuko da”.

Zioak: aurreko emendakinarekin koherentzia mantenduz.

165. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

60. artikuluarri gehiketa egiteko emendakina.

3. puntuaren ondoren beste bat gehitzea proposatzen da:

“4. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, agindu teknikoen pleguak onesteko, bere berariazko araudiari jarraituko zaio.”

Zioak: 1.2.b) artikuluarriak NUPi buruz egiten duen aipamena garatzea.

61. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

166. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gaztelerazko bertsioko 61.2 artikulua aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordez: “o producción determinado”

Honako hau esan behar du: “o producción determinados”.

Honako hau esan ordez: “si se acompañan la expresión”

Honako hau esan behar du: “si se acompaña la expresión”.

Zioak: Gramatika zuzenketak.

62. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

167. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

62.1 artikuluarri aurkezturiko kentzeko emendakina.

“beharkizun horretatik salbuetsita dauden” kentzea proposatzen da.

Zioak: Ez zaigu iruditzen salbuetsitako bakar bat ere egon behar duenik.

168. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

62.1 artikuluarri gehiketa egiteko emendakina:

Kontratuak esleitzeko prozedura guztiak, beharkizun horretatik salbuetsita dauden prozedura negoziatuak izan ezik, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitate honetan hedapen handikoak diren bi egunkaritan iragarriko dira.

Iragarriko dena honako hau da: esleipen-prozedura, esleipena bera eta lege honetan aurreikusitako gainontzekoa.

Zioak: Kontratazioaren iragarpena egitea.

169. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

62.1 artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

Honako hau gehitzea proposatzen da: “Azken horiek ere iragarriko dira argitalpen horretan, zenbatekoa dela-eta Europako Komunitateen Egunkari Ofizialean iragarri behar direnean.”

Zioak: beharrezkoa den zehaztapen bat egiten du.

170. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

62.2 artikulua aldatzeko emendakina. Honela geratuko da:

2) “Obra, hornidura, aholkularitza eta laguntza eta zerbitzu kontratuatarako prozedurak Europako Komunitateen Aldizkari Ofizialean ere iragarriko dira...” (gainontzekoa berdin).

Zioak: Aholkularitza eta laguntza kontratuarentzat eta zerbitzu kontratuarentzat obra eta horniduretarako erabiltzen den irizpide bera ezartzea, Batzorde Bereziak aztertutako proiektuak egiten zuen bezalaxe.

171. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

62. artikuluko 2. idazatiari gehiketa egiteko emendakina.

“laguntza”ren ondoren haxe gehitzea proposatzen da: “aholkularitza eta zerbitzu...” (gainontzekoa berdin).

Zioak: Beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz.

63. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

172. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

63. artikuluko 4. lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: 77. artikulua kentzearekin koherentzia.

173. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

63. artikulua aldatzeko emendakina.

Artikulu hau prozedurez hitz egin ondoren kokatu behar da, eta oraindik ez dira aipatu.

Zioak: Sistematika aldatzeko beharra azpimarratu egiten du.

174. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

63.3 artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

Bukaeran honako hau gehitzea proposatzen da:

“Argitaratze egunak bat ez badatoz, berandugokoa den argitaratze egunetik aurrera zenbatuko da”.

Zioak: Zer gertatuko litzateke bi aldizkariak ez balira egun berean argitaratuko?

64. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

175. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

64. artikuluko 1.a), b), c); 2., 3., 4. eta 5. puntuak kentzeko emendakina.

Horien ordez, honako hau gehitu 1. puntuaren bukaeran: "Kontratuei buruzko 13/1995 Legean eta hori garatzen duten xedapenetan ezarritakoa".

Zioak: Ez zaigu egoki iruditzen Foru Legeak Europako Komunitatearen gainontzekoak dituen zenbatekoen ezberdinak diren kopuruak finkatzea.

176. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

64.1.a) artikulua aldatzeko emendakina.

Honako hau esan orde: "lote guztiei kontratuaren xedapenak aplikatuko zaizkie, iragarpenaren ondorioetarako".

Honako hau esan behar du:

Zioak: ulergarria den zerbait esan behar du. "Kontratuaren xedapenak" delako hori gaizki kopia da 13/1995 Legeko 136. artikulutik. Emendakin hau aurkezten da beste batzuek aurrera ez egitearen kasurako.

177. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

64.5 artikulua aldatzeko emendakina.

"5. Ondoko laguntza kontratuetan ez da derri-gorrezkoa izango argitaratzea Europako Komunitateetako Aldizkari Ofizialean, ez informazio iragarkirik, ez lizitazioari buruzkorik ere, zenbatekoa edozein dutela ere:

a) Ikusentzunezko baliabideak garatu eta bertako programak produzitzeko kontratuak eta haien difusio denborari buruzkoak eta ahots bidezko telefonia, telexa, irrati-telefonia mugikorra, pertsona-bilagailuak eta satelite bidezko komunikazioa kontratatzeak.

b) Kontratazio organoak oso-osorik ordaintzen dituen ikerketa eta garapenerako kontratuak, beti ere horien emaitzak ez badira erabiltzen, bakar-bakarrik, kontratazio organoaren beraren jarduerarako."

Zioak: Argitasun handiagoa eta Estatuko segurtasunerako funtsezkoak diren interesak babesteari eta gerrarako materiala produzitzeari edo horren salerosketari buruzko aipamena kentzea.

65. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

178. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

65.2 artikuluko hirugarren lerroaldea aldatzeko emendakina.

"Presako kasuetan, hala parte hartzeko eska-bideak nola proposamenak aurkezteko epeak murriztu daitezke, hurrenez hurren hamabost eta hamar egunetan finkatzeko, iragarkia edo gonbitea igorri eta biharamunetik hasita.

Zioak: Prozedura murriztuan ez dago "eskaintzarik", "proposamenak" baizik.

66. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

179. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

66. artikulua izenburua aldatzeko emendakina.

"Prozedura murriztuaren epeak herrilaren kontzesioetan."

Zioak: Arauak dioena zehaztea.

180. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

66.2 artikulua aldatzeko emendakina.

"2. Herrilaretako kontzesionario pribatuek, 2.2 artikulua aipatzen dituen horiek, alegia, egiten dituzten kontratuetan, prozedura murriztuan ere bai, parte hartzeko eskaerak aurkezteko gutxieneko epea hogeita hamazazpi egunekoa izango da, eta eskaintzak aurkezteko berrogei egunekoa, iragarkia edo eskaintza aurkezteko gonbitea, hurrenez hurren, igorri eta biharamunetik kontzertzen hasita."

Zioak: argitasun handiagoa.

67. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA

181. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

67. artikuluar gehiketa egiteko emendakina.

“Laguntza”ren ondoren “aholkularitza edo zer-bitzu” gehitzea proposatzen da.

Zioak: Beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz.

68. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK.

182. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

68. artikuluan ordezketa egiteko emendakina.

“egun natural”en ordezketa “lanegunak” jartzea proposatzen da.

Zioak: Administrazio Prozedurari buruzko Legeari egokitzea.

183. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

68. artikuluar gehiketa egiteko emendakina.

“Foru Lege honetan ezarritako epe guztiak”en ondoren

hauxe gehitu: “bertan lanegunekoak direla adierazten denean izan ezik”.

Zioak: beharrezko jotzen den zehaztapan bat sartzea.

184. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

68 bis artikulua gehitzeko emendakina.

68 bis Artikulua. Esleitzeko prozedurak eta moduak.

1. Kontratuen esleipena egin ahal izango da prozedura ireki, murriztu edo negoziatuaren bidez.

2. Bai prozedura irekian bai murriztuan esleipena egin ahal izango da enkante edo lehiaketa bidez, Titulu honetako Hirugarren Kapituluaren ezarritakoari jarraituz.

3. Erabilitako prozedura eta esleipen moduen hautua espedientearen justifikatu beharko da.

Zioak: Proiektua modu argiago eta sistemati-koago batean idatzita egon dadin.

69. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK

185. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

69.2.d) artikuluar gehiketa egiteko emendakina:

...teknikoa zein profesionala eta kontratuaren objektua ez lagatu edo birkontratatzeko har litza-keten konpromisoak frogatzen dituztenak.

Zioak: obra esleipen hartzaileari lotzea.

186. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

69.2.d artikuluar in fine gehiketa egiteko emendakina

“...beren nortasun juridikoa eta kaudimena frogatzen duten...”

Zioak: Hobeto egokitzen zaio aurrekoari.

187. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

69.2.f) artikuluan aldaketa egiteko emendakina.

Atzerriko enpresendako, edozein mailatako Epaitegi eta Auzitegi nafarren eta, hala balitz, espainiarren jurisdikzioaren menpean, hala nola Nafarroako arbitraje organoen menpean, jarriko direla ...

Zioak: Bermea hirugarrenentzat.

188. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

69. artikuluko 2. zenbakian beste puntu bat gehitzeko emendakina. eduki hau izango lukeena:

Langileen lan arriskuei aurrea hartzeari dagokionean indarreko araudia betetzeko beharrezkoak diren neurriak aurreikusiko ditu Enpresak.

Zioak: Zoritxarrez, eraikuntza sektoreko enpresetan lan istripuen indizerik altuena dago, lan ezbeharrak ekiditeko neurrien arloan enpresariak behin eta berriz araei jaramonik ez egiteko joera agertzen dutelako.

189. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

69. artikuluko 4. lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: Proposatzen den salbuespena ez da ulertzen.

190. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

69. artikuluko 5. lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: Proposatzen den salbuespena ez da ulertzen.

191. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

69. artikuluko 6. lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: Proposatzen den salbuespena ez da ulertzen.

70. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK:

192. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

70. artikuluko lehen lerroaldea aldatzeko emendakina.

“Lizitatzaille bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal du, galarazi gabe lehiaketaren administrazio klausula partikularren pleguan lizitazioaren xedea den proiektuan zehaztutakoa aldatzen duten irtenbideak edo irtenbide alternatiboak aurkeztea, 85. artikuluan xedaturikoaren arabera. Halaber, lizitatzailleak ezin izango du proposamenik izenpetu beste batzuekin aldi baterako batasunean nahiz horiekin parte hartuz, indibidualki ere egin baldin badu, eta aipaturiko talde horietako batean baino gehiagotan ere ezin izango du agertu.”

Zioak: Argitasun handiagoa eta elkarrekin parte hartzea kontuan har dadila.

193. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

70. artikulua aldatzeko emendakina.

Azken lerroaldeak puntu eta bereiz moduan agertu behar du, lehen lerroaldean.

Zioak: 13/1995 Legean bezalaxe.

71. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

194. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71.1 artikuluko azken lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: Ez dirudi beharrezkoa denik, hurrengo emendakinari jarraituz.

195. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71.1 artikuluan aldaketa egiteko emendakina:

...prozedura irekian eta murriztuan, eta, hala bada, negoziatuan,...

Zioak: negoziatua kontuan hartzea egoki denerako.

196. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71.1 artikulua aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordez: "bai eta zuzenbideko lizentziatu bat, titulazio hori eskatzen den lanpostu bat betetzen duena, eta kontuhartzaile bat ere."

Honako hau esan behar du: "bai eta zuzenbideko lizentziatu bat, titulazio hori eskatzen den lanpostu bat betetzen duena Administrazioan eta idazkari gisa jardungo duena, eta kontuhartzaile bat."

Zioak: Proiektuaren idazkera aldatzen da eta idazkari jarduna kontuan hartzen da.

197. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71.1 artikuluari 1. idatzatiko lehen lerroaldearen ondoren beste lerroalde bat gehitzeko emendakina. Hona edukia:

Kontratazio mahaiak honako kasu hauetan esku hartuko du: esleipen fasean jardun duen kontratuen amaiazpen, aldaketa, lagapen, birkontratazio eta prezio-berrikuspenean eta kontratu horiei loturiko prestazio osagarrietan. Kasu horietan, kontratazio mahaiak esleipen kasuetan dituen funtzio berberak izango ditu, eta, gainera, kasu horietako bakoitzerako lege honek aurreikusten dituen betekizunak betetzen direla kontrolatuko du.

Zioak: mahaiak esku har dezala kontratuaren hasieratik amaierara arte.

198. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluari lerroalde bat gehitzeko emendakina.

2.000 milioi pezeta baino zenbateko handiagoko kontratueterako, aurrekoek gain honako hauek egongo dira kontratazio mahaietan:

– Kontratazio mahaietan espezializaturiko teknikari bat.

– Zuzenbideko lizentziatu bat.

– Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkuemaileari atxikiriko funtzionario bat.

Zioak: Kontratu hauei garrantzia ematea.

199. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluko 2. idatzatia kentzeko emendakina.

Zioak: Esleipen prozesuaren inpartzialtasuna bermatzearen ikuspegitik, arriskutsua iruditzen zaigu kontratazio mahaietan funtzionario ez diren kideak egotea.

200. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluko 2. lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: Ez zaigu komenigarria iruditzen hain formulazio abstraktu batekin sartzea; hala ere, ideia ona izan daiteke.

201. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluko 2. idatzariari gehiketa egiteko emendakina.

“Mahaikide gisa...” eta “...Administrazioetik kanpoko...” ren artean hauxe gehitzea proposatzen da: “hizpidearekin bai baina botorik gabe”.

Zioak: Funtzionario ez diren kontratazio mahai-ko kideen lana aholkularitza-eginkizun batera mugatzea.

202. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71.2 artikuluan lerroalde bat gehitzeko emendakina.

Gutxienez, zenbaki honetako aurreko lerroaldean aurreikusitako kideetako bat kontratuak 2.000 milioi baino gehiagoko zenbatekoa dutenean mahaiari gehituko zaio. Kasuan kasuko Lanbide Elkargoak egingo du horren izendapena, kontratazio organoak hala eskatu ondoren.

Zioak: kontratu horiek koalifikatzea.

203. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluko 3. lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: Ez zaigu komenigarria iruditzen hain formulazio abstraktu batekin sartzea; hala ere, ideia ona izan daiteke.

204. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluko 4. lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: Ez zaigu komenigarria iruditzen hain formulazio abstraktu batekin sartzea; hala ere, ideia ona izan daiteke.

205. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluko 4. idazatian aldaketa egiteko aurkezturiko emendakina. Honela geratuko da:

“4. Prozedura negoziatuetan kontratazio Mahaia eratzea ez da nahitaezkoa izango, borondatezkoa baizik, zenbatekoak Foru Lege honetako 75. artikuluko 3,4,5 eta 6. idazatietan aurreikusitakoa gainditzen duenean izan ezik, kasu horietan nahitaezkoa izango baita.”

Zioak: babes egokia dela uste dugu.

206. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluko 5. puntuari gehiketa egiteko emendakina.

Bukaeran honako hau gehitzea proposatzen da: “kontratuaren objektuarekin zerikusia daukate-nak”.

Zioak: zuhertasun hori kontuan hartzeari beharrezko deritzogu, Kontratuei buruzko Estatuko Legean bezalaxe.

207. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluko 6. idazatia aldatzeko emendakina. Honela geratuko da:

“6. Kontratazio organoa Mahaiak egindako esleipen proposamenarekin bat ez datorrenean, esleipena egin aurretik txostena eskatu beharko dio Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkuemaileari.

Batzordeak txostena egin ondoren, esleipena Mahaiak egindako proposamenari jarraitu gabe egiten baldin badu, erabakia arrazoitu egin behar-ko du.”

Zioak: Mahaiak egindako proposamenaren aurka eginiko esleipenen kasuetan, esleipen organoa bere erabakia arrazoitzera mugatzea behar bezalako bermea ez dela pentsatzen dugu.

208. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71.6 artikulua aldatzeko emendakina.

Mahaiak eginiko proposamenari jarraituz kontratua esleitzeari kontratazio organoak egoki ez deritzon, honela jardungo da:

a) Txosten arrazoitua bidaliko dio Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkuemaileari, eta hori bat baldin badator mahaiaren proposamenarekin, organoak mahaiaren proposamena onartu beharko du.

b) Kontrako kasuan, organoak egoki deritzona erabakiko du.

c) Nolanahi ere, erabakia arrazoitua izango da, eta prozeduran izandako aurrekariak adieraziko ditu.

Zioak: Erabakia arrazoitzea.

209. EMENDAKINA**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluko 7. idazatia kentzeko emendakina.

Zioak: 2.c artikuluan jadanik jasotakoa errepikatzea ekiditea.

210. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluko 7. idazatia kentzeko emendakina.

Proiektuko 71. artikuluko 7. idazatiaren bukaeran honako espresio hau kentzea proposatzen da:

“...eta aurreko idazatietan araututakoa besterik ez dagoenean aplikatuko da.”

Zioak: Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak badauka kontratazio mahaiaren arauketa bat, eta arauketa hori osoki indarrean dagoela ulertu behar da, nahiz eta litekeena den horren gainean ondoren eginiko aldaketak egotea. Beraz, besterik ez dagoenean aplikatzeari buruzko xedapenak egiteak ez du zentzurik, hori jadanik aurreikusia baitago.

211. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluarri lerroalde bat gehitzeko emendakina.

8. Kontratazio Mahaiaren proposamenek argiak eta arrazoiak beharko dute izan.

Zioak: haren eginkizunari garrantzia ematea.

212. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluarri lerroalde bat gehitzeko emendakina.

Kontratazio Mahaiko kideei beren iritzia agertzeko eta beren jarrera arrazoitua aktan ager dadin daukaten eskubidea bermatuko zaie, gehiengoaren iritzia aurrakoa denean.

Zioak: askatasun pertsonala errespetatzea.

213. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

71. artikuluarri azken puntu berria gehitzeko emendakina:

“Mahaiaren osaketa eta eskuhartzea, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, horren berariazko araudiari egokituko zaio, eta besterik ez dagoenean aplikatuko da aurreko idazatietan araututakoa.”

Zioak: NUP 1.2.b) artikuluan sartua egoteak dakarrena garatzea.

**V. TITULUKO II. KAPITULUKO
LEHEN SEKZIOARI
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****214. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

V. Tituluko 2. Kapituluoko Lehen Sekzioaren izenburua aldatzeko emendakina.

Proiektuko V. Tituluko 2. Kapituluko Lehen Sekzioaren izenburua beste izenburu honekin ordeztzea proposatzen da:

“Esleipen prozedura eta moduak.”

Zioak: Proposatutako emendakinei gehiago egokitzen zaie.

72. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

215. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

72. artikulua aldatzeko emendakina.

72. artikulua beste testu honekin ordeztzea proposatzen da:

“72. artikulua. Kontzeptuak.

1. Kontratuen esleipena prozedura irekia, murriztua edo negoziatua jarraituz egin ahalko da.

2. Prozedura irekian, interesaturik dagoen enpresari orok aurkeztu ahalko du proposamen bat.

3. Prozedura murriztuan, Administrazioak espreski hautatutako enpresariak soilik aurkeztu ahalko dituzte proposamenak, haiek aurretik hala eskatuta.

4. Prozedura negoziatuan, kontratua esleitu zaio Administrazioak arrazoi nahikoarekin hautatutako enpresariari, kontratuaren nondik-norakoak enpresari batekin edo batzuekin kontsultatu eta negoziatu ondoren.

5. Bai prozedura irekian bai murriztuan esleipena enkante edo lehiaketa bidez egin ahalko da, Titulu honen Hirugarren Kapituluan ezarritakoari jarraikiz.

6. Espedientean, erabilitako esleipen prozedura eta modua zergatik aukeratu diren justifikatu beharko da.

Zioak: Argiagoa eta sistematikoagoa da dau den esleipen prozedura guztiak zerrendatzea eta definitzea, prozedura negoziatua aipatu gabe prozedura irekiaz eta murriztuaz hitz egiteari zuzenean ekitea baino.

216. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

72. artikuluko 4. idazatiari gehiketa egiteko emendakina.

Honela dioen bigarren lerroalde bat gehitzea proposatzen da:

“Esleipen prozedura murriztua aukeratzeko beharrezkoa izango da Administrazio Kontratazio-rako Batzorde Aholkuemaileak aurretik txostena egitea, zenbatekoak honako kopuru hauek gainditzen dituenean:

- a) 500.000.000 pezeta, obra kontratuetan.
- b) 100.000.000 pezeta, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan.
- c) 100.000.000 pezeta, hornidura kontratuetan.
- d) 100.000.000 pezeta, laguntza kontratuetan.

Zioak: Prozedura murriztua erabiltzea arrazoizkoa dela behar adina frogatzea.

73. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

217. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

73.1.d) artikuluari aurkezturiko kentzeko emendakina:

5. lerroan “kasu bakoitzean” ken dadila.

Zioak: egokiagoa dirudi.

218. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

73.1.e artikuluari aurkezturiko kentzeko emendakina.

“horrelako bermerik eskatzen bada” ken dadila.

Zioak: 38. artikuluekin koherentzia mantentuz erabaki beharrekoa.

74. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK

219. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

74. artikuluko 1. idazatia kentzeko emendakina.

Zioak: aurreko emendakin batean sartuta dago.

220. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

74. artikuluko 2. puntua aldatzeko emendakina.

74. artikuluko 2. puntuan "ahal baldin bada" esaldia kenduko da; gainontzekoa berdin geldituko da.

Zioak: antzeko beste emendakin bat dela-eta lehen azalduko berberak.

221. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

74.2 artikuluari aurkezturiko kentzeko emendakina.

Honakoa kentzea proposatzen da: "Sekzio honetan zehazten diren espezialitateak galarazi gabe".

Zioak: ez dirudi testu hori sekzio honen hasieran sartzea beharrezkoa denik, xedapen orokorak esleipenetik hastea ez baita ulertzen.

222. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

74. artikuluko 3. idazatia kentzeko emendakina.

Legearen une honetan ken dadila proposatzen da.

Zioak: horrelako gaiak arautzeko une egokia denik ez zaigu iruditzen.

223. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

4. puntu berria gehitzeko emendakina. Hona testua:

4. Prozedura negoziatua, iragarpenarekin nahiz iragarpenik gabe, kontratu-mota bakoitzeko Foru Lege honek zehazten dituen kasuetan bakarrik erabili ahalko da.

Zioak: Prozedura hau salbuespen gisa aurreikustea.

224. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

74 bis artikulua berria gehitzeko emendakina. Hona edukia:

1. 74 bis.1. Beharrezkoa izango da kontratazio mahaiak esku hartzea honako hauetan aurreikusitako prozedura negoziatua erabiltzen denean: lege honetako 75. artikuluko 2. zenbakiko a, c, f eta g idazatietan; 4. zenbakiko b idazatian eta 5. zenbakiko c idazatian.

2. Prozedura negoziatua erabiltzen den gainerako kasuetan, kontratazio organoaren erabakia-
ren menpean egongo da kontratazio mahai batek esku hartzea. Esku hartzen baldin badu, hauek osatuko dute: kontratuaren objektua den gaian espezializaturiko teknikari batek, lehendakari gisa jardunez, kontuhartzaile batek eta zuzenbideko lizentziatu batek; azken horrek, bere ohiko eginkizunak betetzeaz gain, idazkari gisa jardungo du. Horiek guztiek hizpidea eta botoa izango dute.

Zioak: kasuak bereiztea.

75. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK

225. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.1 artikulua aldatzeko emendakina.

Puntuari idazkera berria ematea:

“Aurretiko iragarpenik gabeko prozedura negoziatua erabili ahalko da 13/1995 Legean eta hori garatzen duen legedian aurreikusitako baldintza-zen bat betetzen denean. Hori espedientean justifikatu beharko da.

Zioak: Gai hau Foru Legean arautzea ez zaigu egokia iruditzen.

226. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75. artikuluko 1. idazatian honela dioen bigarren lerroalde bat gehitzeko emendakina:

“Artikulu honetako 2. idazatikoa a), b) eta d) letretan aurreikusitako iragarpenik gabeko prozedura negoziatua erabiltzen den bakoitzean, Kontuen Ganbarari eta Administrazio Kontratazioarako Batzorde Aholkuemaileari haren erabilpenaren eta justifikazioaren berri eman beharko zaie, jakin dezaten”.

Zioak: Iragarpenik gabe esleitzen denean, kontrol eta aholkularitzarako organoei horren berri ematea, gutxienez.

227. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.2 artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Estatuko Legean jadanik arautuak.

228. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.2.a) artikulua aldatzeko emendakina:

Bi prozedura ireki edo murriztu egin baldin badira eta kontratua esleitzen ez bada lizitatzailerik ez dagoelako...

Zioak: Justifikazioa iragarpenik gabe.

229. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.2.a artikulua aldatzeko emendakina.

“ a) Kontratua prozedura irekian edo murriztuan esleitzen ez bada lizitatzailerik ez dagoelako, aurkeztutakoak lizitazioan onartu ez direlako edo aurkeztutako proposamenak arauz kanpokoak edo onartezinak direlako. Iragarpenik gabeko prozedura negoziatua izapidatzean ezin izango dira kontratuaren jatorrizko baldintzak aldatu, salbu eta prezioa, edo, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan, kontraprestazio ekonomikoa; horiek, gehienez ere, % 10 igo ahalko dira. Kasu honetan, kontratuaren zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta, 5.000.000 ecukoa edo hortik gorakoa, obretan, edo 200.000 ecu-koa edo hortik gorakoa horniduran eta laguntzan, baldin bada, Europako Komunitateko Batzordeari txosten bat igorri beharko zaio, berak eskatuta.”

Zioak: “edo eskaintza ekonomikoa” espresioa kendu egin da, prozedura irekian eta murriztuan existitzen dena proposamenak direlako, eta, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuari dagokionean, % 10 hori kontraprestazio ekonomikoari dagoiela zehazten da.

230. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75. artikuluko 2. idazatiari gehiketa egiteko emendakina.

“...direlako.” eta “Iragarpenik gabeko...”ren artean honako testu hau gehitzea proposatzen da:

“Kasu horretan, prozedura negoziatuak aurreko prozeduran lizitazioarako onartuak izandako lizitatzailerik guztiak hartuko ditu”.

Zioak: hori sartzea logikoa eta egokia dela pentsatzen dugu.

231. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75. artikuluko 2. idazatikoa b) letra kentzeko emendakina.

Zioak: idazkera orokorra duela eta hori sartzea beharrezkoa ez dela pentsatzen dugu.

232. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75. artikuluko 2. idazatik c) letra kentzeko emendakina,

Zioak: idazkera orokorra duela eta hori sartzea beharrezkoa ez dela pentsatzen dugu.

233. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.2.f) artikuluari lerroalde bat gehitzeko emendakina:

Beti ere, idazati honen arabera eginiko esleipenak iragarri egingo dira.

Zioak: jadanik erabakitakoaren iragarpena egitea.

234. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.2.g) artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

“beti ere lehenbizikoak”en ondoren hauxe gehitu: “oinarrizko proiektuari jarraitzen baldin bazaizkio”.

Zioak: Antzeko prestazioek obrei dagozkienak izan behar dutela adierazten du. Emendakina beharrezkoa da beste orokorrako batzuk onesten ez badira.

235. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.2.i) artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

“indarra duten legeen arabera”ren ondoren.

Hauxe gehitu: “edo Estatuko segurtasunaren funtsezko interesen babesak hala eskatzen duenean.”

Zioak: Zehaztapen horrek beharrezkoa dirudi, aurreko emendakin bat onesten ez baldin bada.

236. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

75. artikuluko 3. puntua kentzeko emendakina.

Zioak: mota honetako kontratuetan ez da zuzena.

237. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.3 artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Ez da beharrezkoa, Estatuko legediaren arabera 5.000.000 pezeta baino gutxiagokoak izatea horretarako arrazoia baita. (Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legeko 141. artikulua).

238. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.3 artikulua aldatzeko emendakina.

“obra kontratuetan”en ondoren datorrena kentzea proposatzen da.

Zioak: berriazko lege batean arautuko da.

239. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.4.a) artikuluari aurkezturiko kentzeko emendakina. “Lehenbiziko aldiz” tik “bost urtetik beherakoa denean”era bitartean dagoena kentzea proposatzen da.

Zioak: Ez arautzea jadanik arautua dagoena.

240. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

75. artikuluko 5. puntua kentzeko emendakina.

Zioak: Ez da zuzena kontratu mota honetan.

241. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.5.a) artikuluan "Aurrekontua"tik "kontra-tuak"era bitartean dagoena kentzeko emendakina.

Zioak: Ez dirudi arau bitxi hori komenigarria denik.

242. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.5.a) artikulua aldatzeko emendakina. Lehen esaldiaren bukaeratik aurrera, alegia, puntu bat dagoen lekutik aurrera, dagoena ken dadila proposatzen da.

Zioak: berriazko lege batean arautuko da.

243. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.5.b) artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: beharrezkoa ez izateagatik.

244. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.6.a) artikulua aldatzeko emendakina.

"Aurrekontua 2.000.000 pezetakoa baino haundiagoa ez denean" esaldiaz gainerako guztia kentzea proposatzen da.

Zioak: berriazko lege batean arautuko da.

245. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.5.a) artikuluari aurkezturiko kentzeko emendakina.

"2.000.000 pezetakoa edo" kentzea proposatzen da, puntuaren hasieran.

Zioak: Proiektuaren idazkera hobetzea.

246. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75.6.b) artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: horren formulazioa ez zaigu egokia iruditzen.

247. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

75. artikuluko 6. puntuari gehiketa egiteko emendakina. "Laguntza" ren ondoren "aholkularitza edo zerbitzu" gehitzea proposatzen da.

Zioak: Beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz.

248. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75. artikuluari beste idazati bat gehitzeko emendakina. Hona testua:

"Toki Entitateei dagokienez, aurrekontuaren baliabide arrunten ehuneko bosta baino haundiagoa ez den zenbatekoa duten obra kontratuak, portzentaia hori aplikatzearen ondorioz lorturiko kopuruak Kontratuei buruzko Estatuko Legeko 141.g artikuluan adierazitako zenbatekoa gainditzen ez baldin badu.

Zioak: hori sartzea beharrezkotzat jotzea.

249. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

75. artikuluari beste idazati bat gehitzeko emendakina. Hona testua:

“Gizarte Kontseiluaren baimenarekin Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere ikerketa programak burutu ahal izateko beharrezkoak diren ekipo-ondasunak erosteko sinatzen dituen kontratuak”.

Zioak: NUPi buruz Legeko lehen artikulua egiten duen aipamenari ñabardura bat jartzea.

**76. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO
EMENDAKINAK.****250. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

76.1 artikulua aldatzeko emendakina.

“1. Iragarpenik gabeko prozedura negoziatua erabiltzen denean, 74.2 artikuluan xedaturikoaren arabera izapidatuko da.”

Zioak: 74.2 artikuluekin errepikatzea ekiditea.

251. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

76. artikuluko 1. puntua aldatzeko emendakina. “ahal dela” esaldia kenduko da; gainontzekoa, berdin.

Zioak: Antzeko beste emendakin batzuetarako aurretik azalduriko berberak.

252. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

76. artikuluko 2. puntuari aurkezturiko kentzeko emendakina. Aurreko artikuluko 3. idazatiari buruzko aipamena ken dadila.

Zioak: Beste emendakin batekin koherentzia mantenduz.

253. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

76. artikuluko 2. puntuko b) letra aldatzeko emendakina. 76. artikuluko 2. puntuko b) letran, “ahal bada” esaldia kenduko da. Gainontzekoa, berdin.

Zioak: Antzeko beste emendakin batzuetarako aurretik azalduriko berberak.

254. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

76. artikuluari lerroalde bat gehitzeko emendakina:

5. Beti ere, artikuluko honetan aurreikusitako kontratazio motaren arabera eginiko esleipenak Aldizkarian eta Komunitate honetan hedapen handikoak diren bi egunkaritan iragarriko dira.

Zioak: gutxienez, ondoren eginiko iragarpena.

**77. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****255. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

77. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Aurreko emendakinarekin koherentzia mantenduz.

256. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

77. artikuluko 1. puntuko a) idiazatia kentzeko emendakina.

Zioak: Kontratu mota honetan ez da zuzena.

257. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

77.1.a) artikulua aldatzeko emendakina:

...10.000.000 pezeta baino gutxiagokoa...

Zioak: Egokiagoa.

258. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

77. artikuluko 1. puntuko b) eta c) idaztatiak aldatzeko emendakina. 10.000.000 pezetaren ordez 5.000.000 pezeta jartzea proposatzen da.

Zioak: salbuespeneko prozedura honen aplikazioa murriztea.

259. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

77.2 artikuluar b)ren ondoren puntu bat gehitzeko emendakina.

“c) Dagokion administrazio unitateak kreditua badagoela adierazteko eginiko deklarazioa eta txosten juridikoa.”

Zioak: Hori kontuan ez hartzeak ez dirudi arrazizkoa, artikulua kentzeko aurreko emendakinik onesten ez baldin bada.

**78. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA****260. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

78.1.a eta 78.2 artikulua aldatzeko emendakina.

“a) Obra, hornidura eta laguntza kontratuak, prozedura irekietan edo murriztuetan aurkeztuta proposamenak arauz kanpokoak...”

“2. Aurreko zenbakian adierazitako hipotesian, hau da, proposamenak arauz kanpokoak...”

Zioak: Prozedura irekian eta murriztuan dagoena proposamenak dira.

**79. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****261. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

79. artikulua izenburua aldatzeko emendakina. Honela geldituko da:

79. artikulua. Kontzeptua eta prozedura.

Zioak: Batzorde Bereziak aztertutako proiektuko testua berreskuratzea, enkante prozeduraren bidezko kontratazioarako egokiagoa eta ez hain murriztailea izateagatik.

262. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

79. artikuluko 1.idaztatiari aurkezturiko kentzeko emendakina. Proiektuko 79. artikuluko 1. idaztiko lehen lerroan “...gehieneko...” hitza kentzea proposatzen da.

Zioak: Estatuko legediak egiten duen definizioan ez da gehieneko preziorik aipatzen.

263. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

79. artikuluko 2. puntua kentzeko emendakina.

Zioak: Enkante bidezko kontratazioari ezarritako murrizketak kentzea.

264. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

79. artikuluko 2. puntuari gehiketa egiteko emendakina. “laguntza”ren ondoren “aholkularitza eta zerbitzu” tartean jartzea proposatzen da.

Zioak: Beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz.

265. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

79. artikuluko 2. puntuari gehiketa egiteko emendakina. "laguntza"ren ondoren "aholkularitza edo zerbitzu" gehitzea proposatzen da (gainontzekoa berdin).

Zioak: Beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz.

266. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

79.2 artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

"...erabili ahalko da..."ren ondoren "zenbateko txikiko erosketetan" testua sartzea proposatzen da.

Zioak: zorrotzagoa.

267. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

79. artikuluari honela dioen 2 bis puntua gehitzeko emendakina:

2 bis) Kontratazio Mahaiak epearen barruan eta behar bezala aurkeztutako dokumentuak alde aurretik kalifikatuko ditu, eta, jendaurreko ekitaldian, onartutako eskaintzak irekiko ditu, eta esleipena preziorik baxuena eskaintzen duen posturagileari egin dakion proposatuko dio kontratazio organoari.

Esleipen proposamen horrek ez du inolako eskubiderik sortuko proposaturiko enpresariaren alde, Administrazioaren aurrean, kontratazio organoak hari kontratua esleitzen ez dion bitartean.

Zioak: Batzorde Bereziak aztertutako proiektuaren testua berreskuratzea, enkante prozeduraren bidez esleitzeko egokiena izateagatik.

80. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK**268. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

80. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Aurreko emendakinek artikulua haur mantentzea beharrezkoa ez izatea egiten dute.

269. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

80.1 artikuluari aurkeztutako kentzeko emendakina.

Honako haur kentzea proposatzen da: "eta egoki ikusten badu hiru egunetik gorakoa izango ez den epea eman ahalko du akatsak zuzendu edo dokumentazioa osatzeko."

Zioak: Berrikuntza hori ez da ulertzen.

81. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**270. EMENDAKINA****FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

81. artikuluari 5. puntua gehitzeko emendakina. Hona testua:

"Esleipena egiten baldin bada proposamena hasieran ausarkeria aurreikuspenean sartua zeukan enpresari baten alde, horri Lege honetako 39. artikuluko 5.puntuan ezarritako behin betiko bermea galdatuko zaio."

Zioak: Horri buruz lege honetan bertan ezarritakoa errepikatzea, benetan bete dadin.

271. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

81. artikuluari beste lerroalde bat gehitzeko emendakina:

"Esleipena egiten baldin bada proposamena hasieran ausarkeria presuntziopean zeukan enpresari baten alde, esleitutako kontratuaren zenbateko osoaren adinako behin betiko bermea galdatuko zaio hari."

Zioak: hori ez aipatzea ez dugu ulertzen.

84. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK

272. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

84. artikuluko 2. idazatia kentzeko emendakina.

Zioak: ez dugu beharrezkotzat jotzen.

273. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

84. artikuluko 2. lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: hori jartzeak ez dirudi arrazoizkoa.

274. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

84.1 artikulua aldatzeko emendakina:

...salmentaren ondoko zerbitzua, enpresa-kalitateari buruzko ziurtagiriak edukitzea, Komunitate honetan lehendik eginiko esleipenen emaitza, lan arriskuei aurrea hartu ahal izateko galdatzen direnez gain eginiko aurreikuspenak, edo antzekoak...

Zioak: beste faktore batzuk gehitzea.

275. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

84. artikulua ondoen beste bat gehitzeko emendakina.

Lehiaketan, gutunazalak hiru fasetan irekiko dira:

1. Dokumentuak kalifikatzea, kontratista izateko betekizunak betetzen diren egiaztatzeke.

2. Proiektu teknikoak irekitzea, esleipen irizpideetako puntuak esleitzeko.

3. Proposamen ekonomikoak irekitzea; horrela, aurreko fasean emandako baremoa ezaguna izanik, esleipen-hartzailea nor den zehaztu ahal izango da.

Zioak: gutunazalak irekitzeko prozesua zehaztea.

86. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK

276. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

86. artikulua aldatzeko emendakina. Proiektuko testua beste honekin ordeztzea proposatzen da:

Kontratazio Mahaiak alde aurretik kalifikatuko ditu epearen barruan eta behar bezala aurkezturiko dokumentuak; jendaurreko ekitaldian irekiko ditu lizitatzailerik aurkeztutako proposamenak, eta, aktarekin eta egoki deritzon proposamenekin batera -azken horrek beti ere administrazio klausula partikularren pleguan adierazitako irizpideen haztapena agertu beharko du-, kontratua esleitu behar duen kontratazio organoari bidaliko dizkio.

Zioak: Testuaren idazkera hobetzea.

277. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

86. artikuluarik beste lerroalde bat gehitzeko emendakina:

“Administrazioak, arrazoituriko ebazpen baten bitartez, lehiaketan inor garaile ez suertatzea erabaki ahalko du.”

Zioak: hori ez agertzea ez dugu ulertzen.

87. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA

278. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

87.2 artikulua aldatzeko emendakina.

“2. Esleipenaren erabakia epearen barruan ematen ez bada, lehiaketan onartutako enpresariak eskubidea izango dute beren proposamena kendu eta utzitako bermea berreskuratu edo bertan behera uzteko.”

Zioak: “hala bada” espresioa kentzea, zalan-tzak sor baititzake behin betiko bermea itzultzeko arauak aipatzen duen kasuan dagoen behar saihestezinari buruz.

88. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

279. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

88. artikulua aldatzeko emendakina. 1. eta 2. puntuetan “epaimahai” hitza letra xehez idatzirik dago. Horren ordez, “Epaimahai” erabili behar da.

Zioak: gramatika-zuzenketa.

89. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

280. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

89. artikulua ondoen beste artikulua bat gehitzeko emendakina.

89 bis Artikulua. Enkantea eta lehiaketa.

1. Enkantea, hornidura-kontratua esleitzeko modu gisa, zenbateko txikiko erosketetan bakarrik erabili ahalko da, erosi behar diren produktuak oso ongi zehazturik daudenean, normalizatuak egoteagatik eta entrega-epeak aldatzea edo kontratuan inolako aldaketarik sartzea ezinezkoa izateagatik; ondorioz, prezioa gertatzen da esleipenerako faktore erabakigarri bakarra.

2. Gainerako kasuetan, hornidura kontratua lehiaketa bidez esleitzeko da, salbu eta, ondorengo artikuluetan xedaturikoaren arabera, prozedura negoziatua erabili ahal baldin bada.

Zioak: Sistematika eta definizioari dagozkien aurreko hainbat emendekin onartu ez badira, emendekin hau onetsi egin behar da.

90. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

281. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

90. artikuluar aurkezturiko kentzeko emendakina. “erabilitako lizitazio” kentzea proposatzen da.

Zioak: Oinarrizko araudiari egokituagoa.

91. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

282. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

91.1 artikuluar aurkezturiko emendakina, azken puntutik 1. zenbakiaren bukaeraraino doana kentzekoa.

Zioak: Erregistroan kontratu guztiak egotea.

283. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

91.1 artikuluar lerroalde bat gehitzeko emendakina.

Esleipenean adierazi beharko da ea mahaia- ren edo kontratazio batzordearen proposamena- rekin bat datorren, eta erabakitzerakoan kontuan izandako zirkunstantzien laburpen arrazoitua eskaini beharko da.

Zioak: Hautaketa prozesua ezagutzeko behar- rra.

284. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

91. artikuluko 2. lerroaldea kentzeko emenda- kina.

Zioak: berariazko aipamen hori ez da ulertzen.

285. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

91.2 artikulua aldatzeko emendakina:

...Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean, hala bada, kontrazio organoaren iragarki oholean...

Zioak: Emaizaren berri izan dadin laguntzea.

286. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

91.3 artikulua aldatzeko emendakina:

Esleipenaren zenbatekoa 5.000.000 pezetatik gorakoa baldin bada...

Zioak: Oinarrizko legedian aurreikusitakoarekin bat etortzea.

287. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

91.3 artikulua aldatzeko emendakina.

10.000.000 pezeta esan ordez

5.000.000 pezeta esan behar du, Europako monetan adierazirik.

Zioak: espresioa ez da ulertzen.

288. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

91.4 artikulua aldatzeko emendakina:

...gastuen aurrekontua 5.000.000koa edo gehiagokoa eta iraupena bi urtetik gorakoa direnean.

Zioak: Iragarpenaren beharra.

289. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

91.4 artikulua aldatzeko emendakina.

Honako hau esan orde: "10.000.000 milioi pezetakoa"

Honako hau esan behar du: "5.000.000 milioi pezetakoa".

Zioak: aurreko emendakinetan bezalaxe.

290. EMENDAKINA**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

91.4 artikulua aldatzeko emendakina.

"...10.000.000 pezetakoa edo gehiagokoa..."

Zioak: errakuntza.

291. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

91.6 artikulua aldatzeko emendakina.

...onartu ez diren izangai edo lizitatzaille guztiei, hala eskatzen badute, idatziz jakinaraziko dizkie, azalpenak emanez, eskabidea jaso eta ondoko hamabost eguneko epean, eskaintza edo proposamena atzera botatzeko arrazoiak...

Zioak: Interesatuei kausak zehaztea.

**92. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA****292. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

92. artikuluko 1. idazatia aldatzeko emendakina.

Testuaren hasieran honako hau jarri: "Kontratuak agiri administratiboan formalizatuko dira esleipena jakinarazi eta biharamunetik hasita hamabost eguneko epean,..."

Zioak: 41.1 artikuluari aurkezturiko emendakinen berberak.

93. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA

293. EMENDAKINA

«**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

93. artikulua ondoen beste artikulua bat gehitzeko emendakina.

Testua: "Soilik zenbatekoaren arabera definituko diren kontratu txikietan, "x", "y" eta "z" artikuluei jarrituz, espedientea izapidatzeko honakoa besterik ez da beharrezkoa izango: gastua onestea eta erregelamenduz ezarritako betekizunak betetzen dituen kasuan kasuko faktura eranstea; obra kontratu txikian, horretaz gain, obren aurrekontua. Horrek ez du galaraziko proiektua egotea, beraiazko arauak horrelakorik galdatzen dutenean."

Zioak: Legearen hutsune bat betetzea. Kontratu txikiei buruzko beste emendakin batzuetan proposaturiko artikulua berrien zenbakiak egokituko zaizkie komatxoaren arteko letrei.

95. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK

294. EMENDAKINA

«**EZKER ABERTZALEA**»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

95. artikulua aldatzeko emendakina.

95. artikuluko 3. zenbakian ezarritako zigor-eskala aldatzea proposatzen da. 750.000.001 pezetatik 1.000.000.000 pezetara bitarteko kontratuetan, zigorra eguneko 500.000 pezetako izango da. 1.000.000.000 pezeta baino gehiagoko prezioa duten kontratuetan, eguneko zigorra 10.000 pezeta bakoitzeko 5koa izango da.

Zioak: Lehengo formularekin, herrilan handiak egiten dituzten enpresei gehiegizko mesedea egiten zitzaien. Proposatzen den zigorra zuzenki proportzionala ez izanik ere, egokitzapen bidezkoago agertzen du, indar handiagoz behartzen duena epeak behar bezala betetzera.

295. EMENDAKINA

«**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

95.3 artikulua aldatzeko emendakina. Zenbatekoak Europako moneta adieraztea proposatzen da.

Zioak: Beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz. Posible ez baldin bada, aplikatzekoa den Estatu legediari atxikitzea nahikoa izango da.

96. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK

296. EMENDAKINA

«**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

96. artikuluarik aurkezturiko kentzeko emendakina: eta, hau kontra agertzen bada, Estatu Kontseiluaren irizpena.

Zioak: Mozioa aurkeztu baldin bada erabakiak Estatu Kontseilura ez bidaltzeko, koherentziagatik aipamen hori baztertu egin behar dugu.

297. EMENDAKINA

«**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

96. artikuluarik gehiketa egiteko emendakina. 1. puntuaren bukaeran haxe gehitzea proposatzen da: "...edo foru organo aholkuemailearena".

Zioak: Beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz.

97. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK

298. EMENDAKINA

«**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

97.3 artikuluarik lerroalde bat gehitzeko emendakina.

Hirugarren batek erreklamazioren bat egin duelarik hori zuzena dela erabakiko balu kontrata-

zio organoak, interesatuari ordain dakiola aginduko du, eta, borondatez ordaintzen ez baldin bazaio, jarritako bermearen kargura itzuliko zaio zenbatekoa interesatuari. Hori gertatu ondoren, kontratistari bermearen zenbateko guztia behar bezala osa dezala eskatuko zaio, eta, hori egiten ez badu, lege honetako 133.d) artikuluan aurreikusitako amaiarazpen kausa aplikatuko da.

Zioak: hirugarrenei eragindako kalteen bermea.

299. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

97. artikuluari beste lerroalde bat gehitzeko emendakina.

“Aurreko idazatietan xedaturikoaren arabera, erantzukizuna kontratistari baldin badagokio, Administrazioari ezingo zaio eskatu eragindako kalteak aldeztu aurretik ordain ditzala.”

Zioak: hori aipatzeak beharrezkoa dirudi.

99. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

300. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

99.4 artikulua aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordez: “bi hilabeteko epe hori betetzen denetik aurrera”

Honako hau esan daiteke: “epea betetzen denetik aurrera”.

Zioak: idazkera hobea.

100. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

301. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

100. artikulua aldatzeko emendakina. Puntu eta jarriaren ondoren, “Horretarako, kontratuan adieraziko den eta, justifikatutako kasuetan salbu,

formalizatzen denetik hilabete baino gehiagokoa izango ez den epearen barruan” espresioa beste honekin ordeztea proposatzen da: “Horretarako, administrazio klausula partikularren pleguan ezarriko den eta, justifikatutako kasuetan salbu, kontratua formalizatzen den egunetik hilabete baino gehiagokoa izango ez den epearen barruan...”.

302. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

100. artikuluari gehiketa egiteko emendakina. Lerroaldearen bukaeran, “bi alderdiek sinatuko dute”ren ondoren, haxe eranstea proposatzen da: “Horren ale bat kontratua sinatu duen organoari igorriko zaio”.

Zioak: Emaizari buruzko informazioa ematea kontratua egin duen organoari.

303. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

100. artikuluari honako hau gehitzeko emendakina: “Horren ale bat kontratua sinatu duen organoari igorriko zaio”.

Zioak: Zehaztasun handiagoa.

103. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

304. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

103. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Zentzuzkoa dena aseguruak kontratatzea da.

104. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

305. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

104.2.b artikulua aldatzeko emendakina.

“b) Zerbitzuaren antolamendua egokia dela zaintzea, eta horretarako jarraibideak eman ahal-ko dira, Administrazioak kasuan kasuko zerbitzuaren jardun egokia ziurtatzeko beti ere gordeko dituen zaintza ahalmenak galarazi gabe.”

Zioak: 54. artikuluari aurkezturiko emendakinarekin koherentzia mantenduz.

108. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

306. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

108.3 artikulua aldatzeko emendakina.

“3. Aurreko kasuan, Administrazioak ondasunak entregatzeko erabakia kontratazio organoak hartuko du, hornidura kontratua esleitzeko erabiliko den prozedura berarekin, eta erabaki horrek, berez, inbentarioko baja ekarriko du eta, hala behar denean, dagozkion ondasunak desafektatzea.

4. Ondasunen bidez ordaintzen diren hornidurretan, horniduraren prezio guztirakotik Administrazioak emandako ondasunei dagokien zenbatekoa kontratuaren esleipenerako baloratu beharreko elementu ekonomikoa izango da, eta enpresariak espreski agertarazi beharko dute beren eskaintzetan.”

Zioak: Zehaztasun handiagoa lortzea.

VI. TITULUKO I. KAPITULUKO 5. SEKZIO- ARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

307. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

VI. Tituluko I. Kapituluako 5. Sekzioa aldatzeko emendakina. “Laguntza kontratuaren exekuzioa” izenburua beste honekin ordeztzea proposatzen da: “Laguntza eta aholkularitza kontratuen, zerbitzuen eta Administrazioak ohizko ez dituen lan berariazko eta zehatzen exekuzioa”.

Zioak: Beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz.

111. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

308. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

111. artikuluari aurkezturiko kentzeko emendakina. Hauxe kentzea proposatzen da: “edo hura erredaktatu duen kontratistak dagokion zenbatekoa [...] ordaintzea.”

Zioak: Aurrekaririk ez da ezagutzen.

112. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

309. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

112. artikuluko 2. idazatia kentzeko emendakina.

Zioak: Ez da zuzena eta ez da justifikagarria.

310. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

112. artikuluko bigarren lerroaldea aldatzeko emendakina.

Honako hau esan orde: “100eko 50erainokoa”

Honako hau esan behar du: “besterainokoa”.

Zioak: Melilla-ko gordailuarekin gertaturikoaren ondoren, ez da ulertzen zergatik % 50 bakarrik, Kontratuari buruzko Estatuko Legeak esaten duen arren.

113. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

311. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

113. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Administrazioak enpresa lankideak aukeratzera askatasun osoa edukitzearen irizpidearekin ez gatoz bat.

312. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

113. artikuluko 1. idazkia aldatzeko emendakina. Lehen lerroaldean (bigarren lerroan) dagoen "eskuratzeko" hitzaren ordez "ematea" jartzea proposatzen da.

Zioak: kontzeptua argitzea.

313. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

113. artikulua ondoan honela dioen beste artikulua gehitzeko emendakina:

"113 bis. Administrazioak obrak egin ahal izateko eta artikulua honetako 1. puntuan aipaturiko laguntzak lortzeko baimena kontratua onesteko eskumena duen kontratazio organoari dagokio."

Zioak: Aipatu egiten bada, ñabardura egin behar da.

115. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

314. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

115.2 artikulua aldatzeko emendakina.

"Unitate" esan ordez, "prestazio" esan behar du.

Zioak: argitasun handiagoa.

120. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

315. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

120.2 artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Estatuko Administrazioak onetsitako zerbait izanik, hori hemen jartzeak ez dirudi beharrezkoa denik.

126. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

316. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gaztelarazko bertsioko 126.1 artikulua gehi-keta egiteko emendakina.

Honako hau esan ordez: "...por la Administración representante de..."

Honako hau esan behar du: "por la Administración, como representante de..."

Zioak: Argitasun handiagoa.

133. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

317. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

133. artikuluko i) letra kentzeko emendakina.

Zioak: Beharrezkoa ez izateagatik.

134. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

318. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

134. artikuluko 1. puntuko 2. lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: Hori Legean sartzea justifikatua dagoenik ez zaigu iruditzen.

319. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

134. artikuluko 2. puntuko 2. lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: Hori Legean sartzeari behar bezain justifikatua dagoenik ez zaigu iruditzen.

**136. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA****320. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

136. artikuluari beste letra bat gehitzeko emendakina:

e) Aurrekontuak jasandako aldaketak, bata bestearen ondokoak izanik ere, baldin eta, baka-rik nahiz guztiek batera, kontratuaren prezioan aldaketak eragiten badituzte, gorantz nahiz beherantz, kasuan kasuko aldaketa onesteko unean, prezioaren zenbatekoaren 100eko 20an baino neurri handiagoan, edo hasierako proiektuaren funtsa aldatzea baldin badakarte.

Zioak: Ez da ulertzen zergatik ez den Kontratu-
tuei buruzko Estatuko Legeko artikulua guztia kopiatzen.

**138. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA****321. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

138.4 artikulua aldatzeko emendakina.

“4. Administrazioak obrak bertan behera uztea erabakiko balu zuinketaren egiaztapena berandutua dagoen bitartean, edo obran hasiera eten zenetik sei hilabete baino gehiago igaro direnean, kontratistak jaso beharreko kalteordainaren zenbatekoa artikuluko honetako 2. eta 3. idaztatik xedaturikoei, hurrenez hurren, egokituko zaie.

Kontratuaren exekuzioa hasi ondoren Administrazioak obrak bertan behera uzten baditu edo sei hilabete baino gehiagorako obrak eteten baditu,

kontratistak, etekin industrialaren kontzeptuan, egin gabe utzi diren obran prezioaren 100eko 6 jasotzeko eskubidea izango du.”

Zioak: Koherentzia mantentzea 136.c artikularekin eta obrak bertan behera uztearen ondoriozko kalteordaina denbora tarte berari dagozkion amaiazpen kausen ondoriozko beste kalteordain batzuk baino altuagoa izan dadin ekiditea.

**139. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA****322. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

139. artikuluko lehen lerroaldetik i) kentzeko emendakina.

Zioak: Aipamena ez da ulertzen.

**143. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA****323. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

143.3 artikulua aldatzeko emendakina.

“3. Administrazioak bertan behera uztea erabakiko balu horniduraren hasiera eten zenetik sei hilabete baino gehiago edo baldintza-orrian adierazitako epe laburragoa igaro ondoren, kontratistak jaso beharreko kalteordainaren zenbatekoa aurreko idazatian ezarritakoari jarraituko zaio.

Prestazioaren exekuzioa hasi ondoren Administrazioak hornidura bertan behera uzten badu edo hornidura eteten badu, urtebete baino gehiagorako, edo baldintza-orrian adierazitako epe laburragorako, kontratistak, etekin industrialaren kontzeptuan, egin gabe utzi diren entregean prezioaren 100eko 6 jasotzeko eskubidea izango du.”

Zioak: Bertan behera uztearen ondoriozko kalteordaina denbora tarte berari dagozkion amaiazpen kausen ondoriozko bestelako kalteordainak baino altuagoa izatea ekiditea.

VIII. TITULUKO III. KAPITULUKO 5. SEKZIOARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**324. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

VIII. Tituluko III. Kapituluako 5. Sekzioaren izenburua aldatzeko emendakina. Honela geratuko da:

“Aholkularitza eta laguntza kontratuak eta zerbitzu kontratuak amaiaraztea”.

Zioak: Hainbat kontratuen formulazioa mantentzearen alde aurkezturiko beste emendakinekin koherentzia mantenduz.

325. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

VIII. Tituluko III. Kapituluako 5. Sekzioa aldatzeko emendakina. Sekzioaren izenburua beste honekin ordeztzea proposatzen da:

“Laguntza eta aholkularitza kontratuak eta zerbitzu kontratuak amaiaraztea”.

Zioak: Beste emendakin batzuekin koherentzia mantenduz.

144. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA**326. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

144. artikuluko 1. puntua aldatzeko emendakina. Honela geratuko da:

1) Aholkularitza eta laguntza kontratua eta zerbitzu kontratua amaiarazteko kausak dira... (gaintzekoa berdin).

Zioak: Aurreko beste emendakin batzuetan adierazitako berberak.

145. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**327. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

145. artikulua aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordeaz: “zerbitzuen edo lanen”

Honako hau esan behar du: “azterlanen, txostenen, proiektuen, lanen edo zerbitzuen.”

Zioak: zehaztasun handiagoa.

328. EMENDAKINA**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

145.3 artikulua aldatzeko emendakina.

“3. Administrazioak bertan behera uztea erabakiko balu horniduraren hasiera eten zenetik sei hilabete baino gehiago edo baldintza-orrian adierazitako epe laburragoa igaro ondoren, kontratistak jaso beharreko kalteordainaren zenbatekoa aurreko idazatian ezarritakoari jarraituko zaio.

Prestazioaren exekuzioa hasi ondoren Administrazioak hornidura bertan behera uzten badu edo hornidura eteten badu, urtebete baino gehiagorako, edo baldintza-orrian adierazitako epe laburragorako, kontratistak egiteko gelditzen diren lanen edo zerbitzuen prezioaren 100eko 6 jasotzeko eskubidea izango du, lortu gabe gelditutako etekinaren kontzeptuagatik.

Zioak: Kontratua uzteagatik kalteordaina, denbora berean gerta daitezkeen amaiarazpen kasuei dagozkien bestelako kalteordainak baino handiagoa ez izatea.

329. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

145.3 artikulua aldatzeko emendakina.

Honako hau esaten duenean: “lanen edo zerbitzuen...”, hauxe esan behar du: azterlanen, txostenen, proiektuen, lanen edo zerbitzuen.”

Zioak: Ez da ulertzen proiektuaren murriztapen hori.

VIII. TITULUKO IV. KAPITULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

330. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

IV. Kapituluaren eta 146. artikulua izenburuak aldatzeko emendakina. Honako hau esaten duenean: "baliogabetasuna", hauxe esan behar du: "deuseztasuna".

Zioak: Badira esanahi bera duten formulazio batzuk, bata bestearen ordez erabil daitezkeenak, eta hala ere, eta horretaz ari naiz, ez daukate "doinu" bera, bere esanahiari egokitzen zaiona.

Horregatik, bateratzearen ondorioz, deusez eta deuseztasun erabili beharko genuke kontratuetan, baliogabe eta baliogabetasun ordez.

331. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

146. artikulua aldatzeko emendakina. "baliogabeak" esaten duenetan "deusezak" behar du, gainerakoa berdin.

Zioak: Badira esanahi bera duten formulazio batzuk, bata bestearen ordez erabil daitezkeenak, eta hala ere, eta horretaz ari naiz, ez daukate "doinu" bera, bere esanahiari egokitzen zaiona.

Horregatik, bateratzearen ondorioz, deusez eta deuseztasun erabili beharko genituzke kontratuetan, baliogabe eta baliogabetasun ordez.

149. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

332. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

149. artikulua izenburua eta 1. puntua aldatzeko emendakina. Hauxe esaten duenean: "Baliogabetasun deklarazioa", hauxe esan behar du: "Deuseztasun deklarazioa".

Zioak: Aurreko testuari, Batzorde Bereziak aztertu zuenari, ezarri zitzaion formulazioari eus-

tea, are gehiago titulua baino ez denean aldatu, aurreko testuari eutsiz.

333. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

149. artikulua aldatzeko emendakina.

Hauxe esaten duenean: "baliogabetasun", hauxe esan behar du: "deuseztasun".

Zioak: Zehatzago ematen du.

334. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

149. artikuluar gehiketa egiteko emendakina.

Honen ondoren "...interesatuek eraginda", hauxe gehitu: "Estatu Kontseiluak edo Nafarroako Foru Komunitateko organo aholkuemaile balioki-deak aldeko irizpena eman ondoren".

Zioak: Beste emendakin batzuekin koherentzia mantentzearen.

335. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

149.2 artikuluar gehiketa egiteko emendakina.

Honela hasi behar da artikulua "Deuseztasun eta deuseztagarritasun kasuetan...".

Zioak: Zehaztasun handiagoa.

150. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

336. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

150. artikulua aldatzeko emendakina: titulua eta 1, 2 eta 3. puntuak. Hauxe esan ordez "Baliogabetasun deklarazioaren ondorioak", hauxe esan behar du: "Deuseztasun deklarazioaren ondorioak". Orobat, "baliogabetasun" esaten duenean, "deuseztasun" esan behar du.

Zioak: Aurreko testuari, Batzorde Bereziak aztertu zuenari, ezarri zitzaion formulazioari eustea, are gehiago titulua baino ez denean aldatu, aurreko testuari eutsiz.

337. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

150. artikulua aldatzeko emendakina.

“Baliogabetasun”en ordez “deuseztasun” jarri.

Zioak: Aurreko emendakinarekin bat etortzea-rrren.

338. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

150. artikulua 1. puntuari kenketa egiteko emendakina. Hauxe kentzea proposatzen da: “hori interes publikoarendako komenigarri ez bada”.

Zioak: Kontzeptua zehazgabeegia da.

151. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

339. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

151. artikulua izenburua aldatzeko emendakina. Hauxe esan ordez: “Zuzenbide zibileko baliogabetasun arrazoiak”, hauxe esan behar du: “Zuzenbide zibileko deuseztasun arrazoiak”. Era berean, testuko lehen eta azken aurreko lerroetan “baliogabetasun” hitzaren ordez “deuseztasun” hitza erabiliko da.

Zioak: Aurreko testuari, Batzorde Bereziak aztertu zuenari, ezarri zitzaion formulazioari eustea, are gehiago titulua baino ez denean aldatu, aurreko testuari eutsiz.

340. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA.

151. artikulua aldatzeko emendakina.

Honen ordez “administrazio egintzen eta kontratuen baliogabetasunerako”, hauxe jarri “administrazio egintza eta kontratu deuseztagarriak”

Zioak: Testua ez zaio egokitzen Kontratuei buruzko Estatuko Legeari.

152. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

341. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

152.1 artikulua aldatzeko emendakina.

1. Kontratuen lagapena salbuespena da.

2. Hala bada, eta baldintzen orriek ezarritakoari jarraikiz bakarrik, ...

Zioak: Lagapena murriztu.

342. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

152. artikulua lehen lerroalde bat gehitzeko emendakina.

a) Kontrataziorako erabili diren baldintzen orrietakoren batek horretarako ezar daitezkeen betebeharrak betetzea.

Zioak: Litekeena da lagatzea, baina baldintza orriek betebeharrak jar ditzakete.

343. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

152. artikuluko 5 idazatia kentzeko emendakina.

Zioak: Ez da justifikatzen aipatu aurreikuspena.

344. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

152. artikuluko 5 idazatia kentzeko emendakina.

Zioak: Ez dirudi hori sartzeko une egokia denik.

**153. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****345. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

153.1 artikuluari beste lerroald bat gehitzeko emendakina.

Edonola ere, azpikontratazioa salbuespena izango da eta hori egiteko aukera aurrekusi beharko da baldintza orrietan.

Zioak: Mugatzea komeni da.

346. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

153. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

2. lerroaldearen a) letrako bigarren idazatian, "erregelamenduen arabera"ren ondoren, hauxe gehitzea proposatzen da: edo Estatuko segurtasunaren funtsezko interesen babesak hala eskatzen duenean."

Zioak: Ez da ulertzen Kontratuei buruzko Estatuko Legean agertzen den hori zergatik kendu behar den.

347. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

153.2.b) artikulua aldatzeko emendakina.

...100eko 25etik gorakoa.

Zioak: Jaistea komeni da.

348. EMENDAKINA**«EZKER ABERTZALEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

153. artikuluko 4. puntuan (edo 3.ean) hurrengo testua gehitzeko emendakina:

"Era berean, zerga- eta lan-arloetako betebeharrak beteta dituela egiaztatu beharko du azpikontratatistak, eta baita bere langileekiko lan-lege-dia eta lan-arriskuei aurre hartzekoa betetzen duela ere.

Zioak: Eskuarki, azpikontratak izaten dira Gizarte Segurantzari, Ogasunari eta abarri ordaintzen ez dietenak, eta ez diete langileei kontraturik egiten, ez dituzte lan-osasuneko baldintzak betetzen, eta abar.

349. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

153. artikuluari 6. idazatia gehitzeko emendakina. Hona testua:

"Kontratatistak ez baditu betetzen artikulua honetan ezarri diren betebeharrak, kontratuaren funtsezko betebeharren bat ez dela bete kontsidera daiteke Foru Lege honetako 133 h) artikulua ondo ondo etarako, edota emandako behin betiko bermea galtzeko zehapena erakar dezake.

Zioak: Kontratuko obligazio horiek ez betetzeak dituen ondorioak argi eta garbi ezartzea.

350. EMENDAKINA**«EZKER ABERTZALEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehikuntza egiteko emendakina. Ez dakit ongi non jarri. Azpikontratazioari buruzko 153. artikuluan jar daiteke, edota Batzorde Aholkuemaileari buruzko 155.ean. Hona testua:

"Batzorde Aholkuemaileak (edo Kontratazioari Batzordeak) gutxieneko prezioak ezarri beharko ditu (orduko prezioa edo metro kubikoko prezioa) herri lanak egiterakoan lehentasuna izan beharko dutenak".

Zioak: Gutxieneko prezioak bermatu behar zaizkie langile autonomoei (garabiekin dabiltzanei, palistei, kamiolariei...), azken finean lanik gehiena egiten dutenak direlako, eta aseguruak, erregaiak, mantenimendua, ibilgailuen amortizazioa ordaindu behar dutelako, soldata ateratzeaz gain.

**X. TITULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK**

351. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

X. Titulua aldatzeko emendakina.

... Kontratuen eta Hitzarmenen Erregistro Publikoa.

Zioak: edukiarekin bat etortzearen.

**154. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA**

352. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

154. artikulua aldatzeko emendakina. Dagoen artikulua ordez, hurrengo jarri:

1. Kontrata formalizatu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan, kontratazio organoak hurrengoak igorriko dizkio Kontuen Ganbarari, Ganbarak duen funtzio fiskalizatzailea bete dezan: kontrata formalizatzeko erabili den dokumentuaren kopia egiaztatua, sorburu duen espedientearen laburpenarekin batera, kontratuaren munta, beti ere, 100.000.000 pezeta baino gehiago bada, herrilanak kudeatzeko kontratuen kasuan; 75.000.000 pezeta baino gehiago, hornidurakoa bada; eta 25.000.000 pezeta baino gehiago bada, Aholkua eta laguntza emateko kontratuetan, Administrazioaren ohiz kanpoko zerbitzu eta lan zehatz-mehatzei buruzkoetan.

2. Era berean, Kontuen Ganbarari jakinaraziko zaizkio aipatu kontratuen aldaketak, luzapenak, epe-aldaketak eta amaierak.

3. Aurreko idazatietan esandakoa gorabehera, Kontuen Ganbarak administrazio publikoei eskatu ahalko die egoki ikusten duen datu, agiri eta aurrekari oro, edozein zenbateko eta izaeratako kontratuei buruzkoak.

Zioak: Zehaztasun handiagoa. Gainerakoekin bat etortzearen, kopuruak Europako moneta ezarri behar dira.

**155. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK**

353. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

155. artikuluko 1. eta 2. puntuak aldatzeko emendakina. Hurrengo idazkerak proposatzen dira:

1. puntua. "Administrazio Kontratazioarako Batzordeak, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari atxikia, Nafarroako organo aholkularia eta kontsultarako da, administrazio kontratazioari dagokionean."

2. puntua. Foru Lege batek zehaztuko ditu haren osaketa, eginkizunak eta antolaketa. Aipatu eginkizunen artean, Foru Lege honen artikuluetan espreski aurreikusitakoez gain, honako hauek egongo dira:

a) Proiektuaren testuan bezala.

b) Proiektuaren testuan bezala.

c) Administrazio klausula orokorren orrien eta baldintza tekniko orokorren orrien proposamenak egin, Nafarroako Gobernuko Ekonomi eta Ogasun Kontseilariari edo, hala bada, entitae eskumendunei helarazteko.

d) Nafarroako entitate publikoei eta kontratazio administratiboak ukitutako sektoreetako erakunde enpresariari eta profesionalei arlo horretan sartzen diren gaiei buruzko informazioa eman, bere eskuhartzea eskatzen zaionean.

e) Proiektuan d) letran agertzen den testua bezalakoa.

Zioak: Kontratazio Batzordeaz ari denean, "aholkuemaile" hitza behin eta berriz ez errepikatzea, jasota dagoelako aholkuemaile dela.

Haren sorkuntza, osaketa, eginkizunak eta antolaketa foru lege ezarri behar direla finkatzea, eman nahi zaion maila eta garrantziagatik, hain zuzen. (Beste kontseilu aholkuemaile batzuk foru lege sortu baldin badira, are gehiago honako hau).

Azkenik, administrazio klausula orokorren orrien eta baldintza tekniko orokorren orrien proposamenak egiteko zeregina sartzeko, garrantzizkoa baita, gero Nafarroako Gobernuko Ekonomi eta Ogasun Kontseilariari edo, hala bada, 58. artikuluan aurreikusten diren erakunde eskumendunei.

354. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

155.2. artikuluan kenketa egiteko emendakina. Hurrengo letrak kentzea proposatzen da: b, c eta d.

Zioak: Ez dirudi beharrezko denik horren besterainoko zehaztasunik legean.

355. EMENDAKINA**«EZKER ABERTZALEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

155. artikuluko 2. puntuko b) letran hurrengo lerroaldea kentzea: "erreferentzia izan daitezkeenak".

Artikulua honela geratuko litzateke: b) "Esleipenerako irizpideak eta baremoak egin, kontratazio organoendako".

Zioak: Esleipenak egiterakoan bereizkeriarik ez egiteko, aurretik izan beharko dira baremo berdinak (antzekoak) kontratu-mota bakoitzarendako. Kontratazioaren aurreko irizpideak eta baremoak aldatzeak kaltea edo mesedea egin diezaieke kontratistei, argi eta garbi.

356. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

155. 2 artikuluari lerroalde bat gehitzeko emendakina.

e) Iragarkirik ez egiteko bidezketasunari buruzko txostena ematea, Lege honetako 91.5 artikulua aurreikusitako kasuan.

Zioak: Publizitatearen muga sendotzea.

357. EMENDAKINA**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

155.2.e. artikulua gehitzeko emendakina.

"e) Kontratazio organoek Ekonomi eta Ogasun Ministerioko Administrazio Kontratazioarako Batzorde Aholkuemaileari erregelamenduz ezarritako kontratuen gainean eman behar dioten infor-

mazio estatistikoa zentralizatzea, nazioarteko arauak betetzeko."

Zioak: egoki da informazioa zentralizatzea.

358. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

155. artikuluari 3. lerroaldea gehitzeko emendakina. Hona:

"3. Kontratazioarako Batzorde Aholkuemailearen barruan sartuko da, beti ere, ordezkariak duten sindikatu eta enpresario-erakundearen ordezkariak".

Zioak: Egoki deritzogu gizarte-eragileek aldeztutako jarrera hori Foru Legearen testuan sartzea, gizartearen partehartze egokia ahalbidetzeko organo aholkuemailetan.

**156. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****359. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

156. artikulua izena aldatzeko emendakina:

Kontratuen eta hitzarmenen Erregistro Publikoa....

Zioak: Izena eta edukia bat etortzea.

360. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

156.1. artikulua aldatzeko emendakina.

1. Administrazio Kontratazioarako Batzorde Aholkulariaren menpean Kontratuen Erregistro Publikoa izango da, lege honek eragiten dien Administrazio Publikoek egin dituzten kontratu eta hitzarmen guztiak ezagutzeko bidea bermatuko duena, bai eta kasu bakoitzean sortutako gorabehera guztiak ere.

Interesdunek kontsultatu ahal izango dute aipatu erregistroa.

Lege honek eragiten dien erakundetakoren batek egiaztatzen badu kontratu eta hitzarmenei buruzko erregistro berezia izateko adina giza- eta gauza-baliabideak dituela eta hala eskatzen badu, baimena eman ahal izango zaio aipatu erregistroa bere ardurapean mantentzeko.

Zioak: Erregistroaren zeregina osatzea.

361. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

156.2. artikulua aldatzeko emendakina.

“2. Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkularian Kontratisten Erregistro Ofiziala eratu da, izaera publikokoa; bertan Ekonomi eta Ogasun kontseilariak emandako sailkapena alde aurretik lortu duten enpresari guzietan izena eman go dute. Era berean, aipatu Erregistroa kontrataziorako tresna laguntzailea izango da, lehia sustatzeko eta administrazio kontratazioko prozedurak arintzeko.

Zioak: Egungo idazkerarekin badirudi sailkapena duen enpresario orok eman behar duela izena gure erregistroan, eta ez da beharrezkoa enpresak estatu-mailako sailkapena lortu badu.

362. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

156.2. artikulua aldatzeko emendakina.

... kontratisten eta azpikontratisten Erregistro Ofiziala.

Zioak: Horiei kalifikazioa eman.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

363. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria kentzeko emendakina.

Zioak: Egokitzen legez egin beharko litzateke

364. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarriaren lehen lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: Ez da egokitzen jotzen eta ez da ikusten egoera ekonomikoaren parteko arrazoirik aipatu diren aldaketak gertatuko direla aurreikusteko.

365. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarriaren lehen lerroaldea aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordez: “pezetetan ipintzen diren zenbatekoak”

Honako hau esan behar du: “Europako monea-unitatetan ipintzen diren zenbatekoak”.

Zioak: Aurrekoekin koherentzia mantentzeko.

366. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria aldatzeko emendakina, azken xedapen behar baitu.

Zioak: egokiago dirudi.

BEDERATZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

367. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Bederatzigarren xedapen gehigarria aldatzeko emendakina.

Honako hau esan ordez: “...ipini ahalko dute”

Honako hau esan behar du: “... ipiniko dute”.

Zioak: Xedapen gehigarriko aurreikuspen hori administrazio klausula partikularren pleguetan sartzea, salbuespenik gabe.

368. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Bederatzigarren bis xedapen gehigarria jartzeko emendakina. Hona zer dioen:

Bederatzigarren bis xedapen gehigarria. Plan-tilako ehuneko 10 edo gutxiagoko aldi baterakotasun portzentaia duten enpresekiko kontratazioa.

Kontratazio organoek administrazio klausula partikularren pleguetan jarriko dute ezen, kontratuak esleitzerakoan lehentasuna emanen zaiela hurrengo baldintza betetzen duten proposamenei: enpresa publiko zein pribatuek egindakoei, baldin eta, bere gaitasun teknikoa egiaztatzearekin batera, plantilaren aldi baterakotasun portzentaia, azken urteko batez bestekoaren arabera neurtua, plantila finkoaren ehuneko 10 baino gehiago ez dela egiaztatzen badute. Beti ere, jakina, esleitzeko irizpide objektiboen arabera onuragarrien jotzen diren proposamenen parekoak edo antzekoak badira lehen esandako proposamen horiek.

Zioak: Kontratazio finkoa bultzatzea, egungo aldi baterakotasun tasa handia murrizteko. Izan ere, istripuak sortarazten ditu eta bizimodu okerragorako bide ematen du, jasan behar duten langileen artean.

HAMARGARREN XEDAPEN GEHIGARRIARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**369. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Hamargarren xedapen gehigarriari beste lerroalde bat gehitzeko emendakina.

Aurreko lerroaldeak aipatzen duen legea onesten ez den bitartean, toki entitateak lege honetan ezarritakoari lotuko zaizkio kontratazioan.

Zioak: Lege hau haien jarduketa-eremura eramatea.

370. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Hamargarren xedapen gehigarriari beste lerroalde bat gehitzeko emendakina. Hona testua:

“Berezitasunetako bat izango da, indarreko legediari hobekien egokitzen zaion moduan, 9. artikuluari salbuespen bat ezarriko zaiola, alegia, zinegotziak beraien herrietako herri ondasunen probetxamenduarekin zerikusia duten kontratazio prozeduretan izan ahalko dutela”.

Zioak: Zinegotziek behar ez den kalterik jasotzea saihestu nahi da, ohiko probetxamenduok direla-eta. UAGNk proposatuta jarri dugu eztabaidagai.

371. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat, hamaikagarrena, jartzeko emendakina. Hona zer dioen:

Hamaikagarren xedapen gehigarria. Kontratuei buruzko Foru Legearen erregelamendua.

Hauxe bidaliko dio Foru Gobernuak Nafarroako Parlamentuari, sei hilabeteko epean: Kontratuei buruzko Foru Legearen erregelamenduen zirriborroa, Parlamentuak aztertu eta egoki irizita-ko aportazio guztiak bidali ziezazkion Gobernuari, foru planek izaten duten eztabaidatzeko aldi eta prozedura berberari jarraitu ondoren.

372. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat, hamabigarrena, jartzeko emendakina. Hona zer dioen:

Hamabigarren xedapen gehigarria. Administrazio Kontrataziorako Batzordea.

Foru Gobernuak foru lege proiektu bat bidaliko dio Nafarroako Parlamentuari, hiru hilabeteko epean. Hauexek finkatuko dira hor, besteak beste: Nafarroako Administrazio Kontrataziorako Batzordearen osaera, antolaketa eta eginkizunak, administrazio kontratazio arloko organo aholku emailea eta kontsultarako denez.

Zioak: Ematen zaion lanaren garrantzia ikusita, egoki da organo horren sortzea, osaera, antolaketa eta eginkizunak foru legearen bidez ezartzea eta aldaketa politikoetatik at uztea, kontsultarako organo aholku emaile batek behar duen independentziaren irudia sendotuz.

373. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat, hamahirugarrena, jartzeko emendakina. Hona zer dioen:

Hamahirugarren xedapen gehigarria. Kontratazio Mahaia.

Foru Lege honetako 71. artikulua dakarren kontratazio mahaiko idazkariaren kargua, ordezkariarik handiena duten sindikatuen beteko dute, txandaka, eta prozesu guztian zehar arituko dira bere eginkizunetan, eskumena duen organoak esleipena egin arte.

Zioak: Ordezkariarik handiena duten sindikatuak mahaian egotea nahi da, modu egokian, horrek burokrazia gehiago eragin gabe, beste batzuetan esan den bezala, eta arintasuna eta espezializazioa eskatzen duten organoak masifikatu gabe.

374. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat jartzeko emendakina. Horra zer dioen:

“Nafarroako Gobernuak, Foru Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabete epean, Legeko 11. artikuluko d) letrako 1. idazatian aurreikusitako erregelamendu-garapena onetsiko du.”

Zioak: Kontratazio organo kolegiatuak benetan abiaraztea.

375. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat jartzeko emendakina. Hona zer dioen:

“Nafarroako Gobernuak, Foru Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabete epean, Legeko 155. artikuluan 1. idazatik lehen lerroaldean aurreikusitako erregelamendu-garapena onetsiko du.”

Zioak: Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholku Emaila epe laburrean abiaraztea.

376. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat jartzeko emendakina. Hona zer dioen:

“Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuen esleipenari dagokionean, esleipendun enpresek 25 langile baino gehiago badute, enpresetako plantilako langileen % 3k, gutxienez, akats fisiko larria, gortasun larri eta sakoan akats psikikoa edo adimen gaisotasun larria beharko du izan”

Zioak: Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordeak 1997ko ekainaren 4an egindako bilkuran onetsi zuen mozioa betetzea (1997ko ekainaren 11ko 43. zk. ko NPAO).

377. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Hamaikagarren xedapen gehigarria jartzeko emendakina.

Gobernuak sei hilabete epean bidaliko du Parlamentura sozietate eta fundazio publikoen kontratazioari buruzko lege proiektua.

Zioak: Kontratazko irizpideak ezarri entitate publiko horietarako.

378. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat jartzeko emendakina.

Gobernuak sei hilabete epean bidaliko du Parlamentura izenpetu daitezkeen hitzarmenen araubide juridikoari buruzko lege proiektua.

Zioak: Arautu egin behar da gai hori.

379. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Hamaikagarren xedapen gehigarria jartzeko emendakina.

Gure Komunitatean gehien zabaltzen direneta-ko bi egunkaritan argitaratuko da urtero Nafarroako Gobernuak bere departamentu, erakunde autonomo, sozietate eta fundazio publikoen bidez gauzaturiko kontratuen zerrenda, non eta aurreko urtealdian bukatu bada haien exekuzioa. Prezio hauek jarriko dira: lizitaziokoa, esleipenekoa eta likidaziokoa.

Toki entitateei ere jarri ahalko zaie betebeharrori, ezarriko diren terminoetan.

Zioak: Jendeak jakiteko.

380. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

ECUak aipatzen dituzten artikuluko guztiei gehikuntza egiteko emendakina. Hauxe gehitu behar da:

..., Euro edo txanpon ofizial.

Zioak: 1999ko urtarrilaren 1etik aitzina euroak erabiliko dira eta ecuak desagertu.

PROIEKTUAREN SISTEMATIKAREKIKO EMENDAKINAK

381. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina. Kontratuei buruzko Foru Lege proiektuak bere artikuluetan erabili duen sistematikaren ordez beste bat jarri nahi da, alegia, Estatuko 1995eko legeak kontratazioa legez garatzeko erabili duen hurrenkeraren antzekoa.

Zioak: Estatuko legearen sistematika eta aurkeztutako proiektuarena ezberdinak dira, edukiaren aldetik bat datozen arren, arlo honek behar hala behar duelako, nahitaez.

Kontratazioaren arloa, bestalde, teknikoa eta prozedimenduzkoa da, hein handi batean.

Hori dela eta, zerbitzu hobea emango zaie legeak eragiten dienei lege bietan hurrenkera eta sistema berberak erabiltzen badira.

382. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Legearen sistematika aldatzeko emendakina

Foru lege proiektuaren testuaren sistematika aldatzea proposatu dugu, Estatuko kontratuei buruzko 13/1995 Legeari hobeto egokitzearren. Emendakin honen eranskinean jarri dugu proposamena, orientabide gisa.

Zioak: Europako Batasuneko zuzentarauei eta Estatuko legediari hain lotuta dagoen lege batean, haiekin horren besteko zerikusia duen batean, alegia, formaren aldaketa sakonak sartzeak (edukiari buruzkoez gain) ez du inongo zentzurik, parlamentuko talde honen ustetan, beti ere. Are gehiago, legea erabiltezin bihur daiteke. Aurreko egiturari ihes egiten zaio, Estatuko egitura berria ez da erabiltzen, eta azken finean, ezar daiteken araubide juridikoa zein den jakitea zaildu egiten da.

Eranskina:

I. TITULUA

Foru Komunitatearen Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontratuak

I. KAPITULUA

Aplikazio eremua eta araubide juridikoa

1. artikulua. Aplikazio eremua.
2. artikulua. Obra publikoen kontzesio-hartzailerei aplikatzea.
3. artikulua. Salbuetsiriko negozio eta kontratuak.
7. artikulua. Ituntzeko askatasuna.
4. artikulua. Kontratuen izaera administratiboa eta pribatua.
5. artikulua. Kontratu administratiboen araubide juridikoa.
6. artikulua. Kontratu pribatuen araubide juridikoa.

II. KAPITULUA

Administrazioaren kontratuen xedapen amankomunak

8. artikulua. Kontratuen betebeharrak.
9. artikulua. Abstenitzea eta errefusatzeta.
10. artikulua. Kontratuen prezioa.

III. KAPITULUA

Kontratazio organoak

11. artikulua. Kontratuak izenpetzeko eskumena.

12. artikulua. Nafarroako Gobernuaren baime-na.

II. TITULUA

Administrazioarekin kontratatze kobetebeharrak

I. KAPITULUA

Enpresen gaitasuna eta kaudimena.

24. artikulua. Enpresen gaitasuna.

25. artikulua. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa.

26. artikulua. Kaudimen teknikoa obra kontratuetan.

27. artikulua. Hornidura kontratueterako kaudimen teknikoa.

28. artikulua. Gainerako kontratueterako gaitasun tekniko edo profesionala.

29. artikulua. Kontratatze debekuak.

30. artikulua. Deklarazioa egiteko prozedura eta ondorioak.

31. artikulua. Gaitasun edo kaudimen ezaren eta kontratatze debekuen ondorioak.

32. artikulua. Laguntza kontratueterako batera- ezintasun berezia.

33. artikulua. Europako Batasunetik kanpoko enpresak.

34. artikulua. Enpresari batasunak.

II. KAPITULUA

Kontratisten sailkapena

35. artikulua. Sailkapen kasuak.

36. artikulua. Sailkapenerako salbuespenak eta Europako Batasuneko sailkapen ziurtagiriak.

37. artikulua. Sailkapenari aplikatu beharreko araubidea.

III. KAPITULUA

Administrazioarekin kontratatze eskatuko diren bermeak

38. artikulua. Behin-behineko bermeak.

39. artikulua. Behin betiko bermeak, berme bereziak eta osagarriak.

40. artikulua. Salbuespenak eta baimenak, bermeak jartzeari dagokionez.

41. artikulua. Behin betiko bermea jartzea eta egokitzea.

42. artikulua. Bermeen esparrua.

43. artikulua. Bermeak exekutatzeko lehentasuna.

44. artikulua. Hirugarrenek jarritako bermeak.

45. artikulua. Behin betiko bermeak itzuli eta kitatzea.

III. TITULUA

Kontratazioari buruzko jarduketak

I. KAPITULUA

Administrazio klausulen eta agindu teknikoen orriak

58. artikulua. Administrazio klausula orokorren orriak.

59. artikulua. Administrazio klausula partikularren plegua.

60. artikulua. Agindu teknikoen pleguak.

61. artikulua. Agindu teknikoak eta debekuak ezartzeko ordena.

II. KAPITULUA

Kontratuak perfektionatu eta formalizatzea

90. artikulua. Kontratuak perfektionatzea.

91. artikulua. Esleipenak jakinaraztea eta iragartzea.

92. artikulua. Kontratuak formalizatzea.

93. artikulua. Ahozko kontratazioa.

III. KAPITULUA

Administrazioaren eskumenez

22. artikulua. Administrazioaren eskumenak.

23. artikulua. Errekurtsoak eta arbitraia.

IV KAPITULUA

Kontratuen baliogabetasuna

146. artikulua. Kontratuen baliogabetasuna.

147. artikulua. Administrazio zuzenbideko deuseztasun kausak.

148. artikulua. Administrazio zuzenbideko deuseztagarritasun kausak.

149. artikulua. Baliogabetasun deklarazioa.

150. artikulua. Baliogabetasun deklarazioaren ondorioak.

151. artikulua. Zuzenbide zibileko baliogabetasun arrazoiak.

V. KAPITULUA

Kontratua prestatzeko administrazio jarduketak

46. artikulua. Kontratazio espedientea.

47. artikulua. Kontratuaren xedea zatikatzea.

VI. KAPITULUA

Kontratazio espedienteen izapidatzea

55. artikulua. Espediente motak.

56. artikulua. Presako espedienteak.

57. artikulua. Larrialdiko espedientea.

VII. KAPITULUA

Kontratuak esleitzea

68. artikulua. Epeen kontaketa

69. artikulua. Interesatuen proposamenak.

70. artikulua. Aldi bereko proposamenak.

71. artikulua. Kontratazio mahaia.

1. Sekzioa Enkantea

79. artikulua. Kontzeptua eta aplikazioa.

80. artikulua. Esleipen proposamena.

81. artikulua. Esleipena eta ausarkeriazko beherapenak.

82. artikulua. Esleipena amaiarazpen kasuetan.

2. Sekzioa Lehiaketa

83. artikulua. Aplikazio kasuak.

84. artikulua. Lehiaketa esleitzeko irizpideak.

85. artikulua. Aldaeren onarpena.

86. artikulua. Esleipenerako proposamena.

87. artikulua. Esleipen epea.

88. artikulua. Proiektu lehiaketak epaimahaiaren eskuhartzearekin.

89. artikulua. Informazioaren tratamendurako ekipoak edo sistemak erosteko lehiaketak.

3. Sekzioa

Prozedura irekia eta prozedura murriztua

72. artikulua. Kontzeptuak.

73. artikulua. Prozedura murriztuaren espezialitateak.

4. Sekzioa Prozedura negoziatua

74. artikulua. Xedapen orokorrak.

75. artikulua. Prozedura negoziatua, iragarpenik gabea.

76. artikulua. Iragarpenik gabeko prozedura negoziatuen izapidetzea.

77. artikulua. Prentsan iragarritako prozedura negoziatua: esparrua eta izapidetzea.

78. artikulua. Europako Batasuneko iragarpena duen prozedura negoziatua.

VIII. KAPITULUA

Kontratuen exekuzioa eta aldaketa

1. Sekzioa Kontratuen exekuzioa

94. artikulua. Kontratuen ondorioak.

95. artikulua. Exekuzioaren berandutza.

96. artikulua. Berandutzagatiko amaiaraztea eta kontratuen luzapena.

97. artikulua. Kalte eta galeren ordainak.

98. artikulua. Arriskua eta zoria.

99. artikulua. Prezioaren ordainketa eta kobrantza eskubideen transmisioa.

2. Sekzioa Kontratuak aldatzea

114. artikulua. Guztiondako xedapenak.

115. artikulua. Unitate berriak sartzeagatik egitako aldaketak.

116. artikulua. Aldaketa espedientearen izapidetzea

117. artikulua. Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuaren aldaketa.

118. artikulua. Kontratuen etendura.

IV. TITULUA

Administrazioaren kontratuen prezioak berrikustea

KAPITULU BAKARRA

Xedapen orokorrak

119. artikulua. Prezioak berrikustea bidezko den kontratuak.

120. artikulua. Berrikuspen formulak.

121. artikulua. Berrikuspen prozedura.

122. artikulua. Berrikuspena, berandutza kasuetan.

123. artikulua. Berrikuspenaren zenbatekoaren ordainketa.

V. TITULUA

Kontratuen iraungipena

I. KAPITULUA

Xedapen orokorra

124. artikulua. Kontratuen iraungipenaren kausak.

II. KAPITULUA

Kontratuak betetzea

125. artikulua. Kontratuak betetzea eta harre-
ra.

VI. TITULUA

Kontratuen lagapena eta azpikontratazioa

KAPITULU BAKARRA

Xedapen orokorrak

126. artikulua. Harrera eta berme-epea.

127. artikulua. Likidazioa.

128. artikulua. Ezkutuko akatsengatik erantzukizuna

129. artikulua. Itzultzea.

VII. TITULUA

Atzerriko kontratazioa

KAPITULU BAKARRA

Xedapen orokorrak

133. artikulua. Amaiarazteko kausak.

134. artikulua. Amaiaraztearen kausak aplikatzea.

135. artikulua. Amaiaraztearen ondorioak.

VIII. TITULUA

Kontratuen Erregistro Publikoa

KAPITULU BAKARRA

Xedapen Orokorrak

152. artikulua. Kontratuen lagapena.

153. artikulua. Azpikontratazioa.

X. TITULUA

Kontuen Ganbara, Administrazio Kontratazioarako Batzorde Aholkuemailea, Kontratuen Erregistro Publikoa eta Kontratisten Erregistro Ofiziala

KAPITULU BAKARRA

Xedapen Orokorrak

154. artikulua. Kontuen Ganbara.

155. artikulua. Administrazio Kontratazioarako Batzorde Aholkuemailea.

156. artikulua. Kontratuen Erregistro Publikoa eta Kontratisten Erregistro Ofiziala.

II. LIBURUA

Administrazio-kontratu mota ezberdinak

I. TITULUA

Obra kontratua

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

13. artikulua. Obra kontratuaren xedea.

14. artikulua. Kontzesio kontratuaren kontzeptua.

48. artikulua. Obra proiektua.

49. artikulua. Obren sailkapena.

50. artikulua. Obra proiektuen edukia.

51. artikulua. Proiektua gainbegiratzea.

52. artikulua. Obraren zuinketa eta lurren eskuragarritasuna.

53. artikulua. Enpresariak proiektua aurkeztea.

54. artikulua. Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan, ustiapenaren aurreproiektua.

62. artikulua. Lizitazioen publizitatea.

63. artikulua. Epeak.

64. artikulua. Aurreikusitako kontratazioei buruzko iragarkiak.

65. artikulua. Europako Batasunerako publizitatearen duten prozeduretarako epeak.

66. artikulua. Herrilanen kontzesioetarako epeak.

67. artikulua. Laguntza kontratuen kategoriak.

II. KAPITULUA

Obra kontratuaren exekuzioa eta aldaketa

1. Sekzioa

Obra kontratuaren exekuzioa

100. artikulua. Zuinetaren egiaztapena.

101. artikulua. Obren exekuzioa eta kontratistaren erantzukizuna.

102. artikulua. Ziurtagiriak eta konturako ordainketak.

103. artikulua. Ezinbesteko kasuak.

2. Sekzioa

Obra kontratuaren aldaketa

136. artikulua. Amaiarazteko kausak.

137. artikulua. Obra funtsean aldatzea eta obraren hasiera etetea.

138. artikulua. Amaiaraztearen ondorioak.

II. TITULUA

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

15. artikulua. Araubide orokorra eta kontratazio motak.

16. artikulua. Iraupena.

II. KAPITULUA

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua prestatzeko administrazio jarduketak

104. artikulua. Kontratistaren betebeharrak.

105. artikulua. Prestazio ekonomikoak eta baliabide lagungarriak.

106. artikulua. Kontratistak ez betetzea.

III. KAPITULUA

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua esleitzeko prozedurak eta moduak

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuaren amaiazte

139. artikulua. Amaiarazteko kausak.

140. artikulua. Amaiarazteko kausak aplikatzea.

141. artikulua. Amaiaraztearen ondorioak.

III. TITULUA

Hornidura kontratua

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

17. artikulua. Kontzeptua.

18. artikulua. Informazioaren tratamendua.

19. artikulua. Errentamendua eta luzapena.

II. KAPITULUA

Hornidura kontratua esleitzeko prozedurak eta moduak

107. artikulua. Hornigaiak entregatu eta jasotzea.

108. artikulua. Prezioaren ordainketa eta ondasetan ordaintzea.

109. artikulua. Administrazioaren ahalmenak fabrikazio prozesuan.

130. artikulua. Entrega eta harrera gastuak.

131. artikulua. Akatsak edo hutsak bermealdian.

Hornidura kontratua amaiaztea

142. artikulua. Amaiarazteko kausak.

143. artikulua. Amaiaraztearen ondorioak.

IV. TITULUA

Aholkua eta laguntza emateko kontratuak, Administrazioaren ohiz kanpoko zerbitzu eta lan zehatz-mehatzak egitekoak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

20. artikulua. Kontzeptua.

21. artikulua. Iraupena.

II. KAPITULUA

Kontratuok prestatzeko administrazio jarduketak

110. artikulua. Exekuzioa eta kontratistaren erantzukizuna.

111. artikulua. Kalteordainak.

112. artikulua. Proiektuaren akats edo hutsegi-teengatiko erantzukizuna.

113. artikulua. Kasuak eta baimena.

III. KAPITULUA Kontratuok amaiazaraztea

144. artikulua. Amaiarazteko kausak.

145. artikulua. Amaiaraztearen ondorioak.

IV. KAPITULUA Obra proiektuak egiteko kontratuaren berezitasunak

132. artikulua. Okerrak zuzendu eta akatsak konpontzea.

Xedapen gehigarriak, xedapen iragankorrak eta azken xedapenak

ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

383. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 1. zenbakiaren hamabostgarren lerroaldean zerbait kentzeko emendakina:

...prestatzaileen iritziz...

Zioak: Ez du egoki ematen esamolde hori mantentzeak.

384. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 1. zenbakiaren hamazazpi-garren lerroaldean zerbait kentzeko emendakina:

...prestatzeko eginiko ahalegina...

Zioak: Ez du egoki ematen esamolde hori mantentzeak.

385. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko emendakina. 2.2 puntuko hirugarren lerroaldea aldatu nahi da.

Honako hau esaten duenean: "Esperientziak erakusten du...", hauxe esan behar luke: "Ez gara Administrazioa burdinazko kortse formalaz gerrikatzen ari, prozedurako faseak ugaltu eta administrazio kontratazioa kontrolatzeari eraginkortasunik gehitu gabe".

Zioak: Esperientziak, oraingo honetan, gauza gehiegi erakutsiko liguke. Beraz, helburua hauxe da: emendakin bitartez sartu diren eta sartu nahi diren aldaketek oreka aurkitu nahi dutela eraginkortasunaren eta beharrezko gardentasunaren artean.

386. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko emendakina. 2.2 puntuko laugarren lerroaldea aldatu nahi da. Honako hau esaten duenean: "Eraginkortasuna sustatzea,....", hauxe esan behar luke: "Aitzitik, ordea, oreka bilatu nahi da eraginkortasunaren eta gardentasunaren artean, iragan hurbilean gertatu direnek herritarrengan sortarazi duten irudi txarra gainditzeko. Beraz, hauexek azpimarratu nahi dira: kontratazioaren gardentasuna, berdintasuna eta objektibotasuna, eta beharrezko publizitate".

Zioak: Esperientziak, oraingo honetan, gauza gehiegi erakutsiko liguke. Beraz, helburua hauxe da: emendakin bitartez sartu diren eta sartu nahi diren aldaketek oreka aurkitu nahi dutela eraginkortasunaren eta beharrezko gardentasunaren artean.

387. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari aurkezturiko emendakina, zati bat kentzekoa. 2.5 puntua kentzea proposatzen da. Honela hasten da: "Hori horrela, aholkularitza eta laguntza..."

Zioak: Testuari egin zaizkion beste emendakin batzuekin bat egitearren, figura horiek berreskuratzeke Nafarroako kontratazioan.

388. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari aurkezturiko emendakina, zati bat kentzekoa. 2.7.2 puntuko bigarren lerroaldeko esaldi hau kentzea proposatzen da: "posible bada".

Zioak: Beti da posible hiru enpresari galdetzea. "Posible bada" jartzea onartezina da, 2.7.2 puntuak berak, lehen lerroaldean, ezarri duen berme-etako bat baita.

389. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 2.7.2 idazatiaren hirugarren lerroaldean egin beharreko kentzeko emendakina:

... haren deskripzioa... Foru Lege honek...

Zioak: Esamolde horri eustek ez du egoki ematen.

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Foru Lege proiektua

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO EMENDAKINAK

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko martoxaren 11n egindako bilkuran, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» eta «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeek Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko Osoko emendakinak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordera igorri da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 12an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------